





Vitoria-Gasteizko Udala

**GARAPENEAN LAGUNTZEKO  
PROGRAMA**



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko Udala



**2006ko oroit-idazkia**



<b>1. Gasteizko Udalaren lankidetzaren 2006. urtean: ikuspegi orokorra</b>	<b>9</b>
1.1. Zeregina eta helburu estrategikoak .....	11
1.2. Programa: datu orokorrak.....	12
1.2.1. Garapenean laguntzeko aurrekontu partida	
1.2.2. Jarduera-arloak.	
1.2.3. Diru-laguntzaren kudeaketa	
1.2.4. Balorazioa eta hobetzeko proposamenak	
<b>2. Lankidetzaren programa</b>	<b>17</b>
2.1. Lankidetzaren arloa .....	19
2.1.1. Garapenean laguntzeko hainbat urterako proiektuetarako 2003ko deialdiari dagozkion ekarpenak	
2.1.2. Lankidetzarako urteko deialdia	
2.1.3. Saharako herriarekiko lankidetzaren eta elkartasun hitzarmena	
2.1.4. Euskal Fondoarekiko hitzarmena	
2.1.5. Paitako (Peru) probintziako alkatetzarekiko hitzarmena	
2.2. Gizaldekotasunaren ekintza, giza eskubideak babestea eta larrialdiak .....	31
2.2.1. Ahaztatutako krisialdien testuinguruan gauzatzeko gizaldekotasunaren ekintza programa bat hautatzeko lehiaketa	
2.2.2. Convocatoria de "Apoyo a la protección de los derechos humanos en países en vías de desarrollo"	
2.2.3. Larrialdietarako Arabako Funtsa	
2.3. Gasteizko Udalaren lankidetzaren datu nagusiak.....	35
2.3.1. Lankidetzaren eta gizaldekotasunaren ekintza	
2.3.2. Herrialdeen arabera banaketa	
2.3.3. Geografiaren arabera banaketa	
<b>3. Sentiberatze programa</b>	<b>39</b>
3.1. Diru-laguntza deialdiak.....	41
3.1.1. Diru-laguntza deialdia: "Garapenerako Hezkuntzako zenbait urterako baterako proiektuak finantzatzeko"	
3.1.2. Gasteizen burutzeko nazioarteko elkartasunaren alorreko sentiberatze jarduerak finantzatzeko laguntzeko diru-laguntza deialdia"	
3.2. Lankidetzaren hitzarmenak .....	48
3.2.1. SETEM-HEGO HAIZEAREKIKO hitzarmena, Gasteizko Udalaren esparruan bidezko merkataritza sustatzeko	
3.2.2. EAEko GGKEen Koordinakundearen (Arabako ordezkariak), Gasteizko Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena	
3.2.3. Bakeaz koadernoaren bilduman azterlanak argitaratzeko hitzarmenak	
3.2.4. "Oporrak bakean" programarako hitzarmena	
3.2.5. SETEM Hego Haizea eta Arabako Foru Aldundiarekiko hitzarmena, garapenean laguntzeko boluntarioak prestatzeko programa garatzeko. 2006/2007 ikasturtea	
3.3. Informazioa, zabalkundea eta prestakuntza .....	48
3.3.1. "Elkartasun uhina" erakusketa	
3.3.2. "Lankidetzaren irudietan" II. argazki lehiaketa	
3.3.3. Argazki erakusketa bat aukeratzeko	
3.3.4. GGKEetako lan-baldintzei buruzko azterketa	
3.3.5. "Eztabaidaren begian" programa	
3.3.6. Udalerriaren artikuluak argitaratzea	
3.3.7. Lankidetzari buruzko web-orria	
3.3.8. Materialen zabalkundea	
3.3.9. Jostailuak biltzeko kanpaina.	
<b>4. Jarraipena eta ebaluazioa</b>	<b>53</b>
4.1. Proiektuei buruzko txostenen jarraipena .....	55
4.2. Saharako programa ebaluatzeko kontratazioa .....	55
4.3. Nikaraguako hainbat urterako bi proiektuen ebaluazioaren emaitzak .....	55
4.4. SETEMen prestakuntza programa ebaluatzeko kontratazioa .....	56
<b>5. Truke eta bisitaldiak</b>	<b>57</b>
5.1. Kogoko zentro soziokulturala .....	59
5.2. Oum El Banine eta Ard Al Aftal elkarteak.....	59
5.3. Bisitaldiak .....	59
<b>6. Lankidetzarako Kontseilua</b>	<b>69</b>









# **1**

## **Gasteizko Udalaren lankidetzaren 2006. urtean: ikuspegi orokorra**



## **1.- GASTEIZKO UDALAREN LANKIDETZA 2006. URTEAN: IKUSPEGI OROKORRA**

### **1.1. Zeregina eta helburu estrategikoak**

Gasteizko Udalak garapenerako ematen duen laguntza kudeatzea da Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren zeregina. Izan ere, aspalditxo erabaki zuen udalak bere aurrekontuen % 1 herrialderik txiroenei garapenean laguntzeko eta gasteiztarren artean haienganako elkartasuna sustatzeko baliatzea.

Aurrekontu partida horren kudeaketaz harago, helburu hauek ditu Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak:

- Gasteizko gizatalde eta GGKEek esku hartzen duteneko elkartasun eta garapen jarduerarako laguntza ematea.
- Garatze bidean dauden herrialdeetako garapen-esperientzietan laguntzea, giza garapen iraunkorraren ikuspegitik, hartara lekuan lekuko erakunde demokratikoak eta herritarren parte-hartzea sendotzeko.
- Gasteizko GGKEen eta garatze bidean dauden herrialdeetakoen arteko lankidetzeta eta elkartasun loturak sendotzeko aukera eskaintzea.
- Gasteizko Udalak esku hartzen dueneko lankidetzeta proiektu eta programen kalitatea hobetzea.

## 1.2. Programa: datu orokorrak

### 1.2.1. Garapenean laguntzeko aurrekontu partida

Gasteizko Udalak hasiera batean garapenean laguntzera bideratutako aurrekontua, 2006. urtean, 2.464.432,00 eurokoa izan zen; hain zuzen ere, udalak onetsitako aurrekontu osoaren % 0,82.<sup>1</sup>

Hona aurrekontua gauzatzeari buruzko datuak:

Kapitulua	2006ko aurrekontua	Gauzatua	%
IV. kapitulua (diru-laguntzak)	2.407.432,00 €	2.407.432,00 €	100
II. kapitulua (kanpoko zerbitzuak)	57.000,00 €	32.092,17 €	56
<b>Guztira</b>	<b>2.464.432,00 €</b>	<b>2.439.524,17 €</b>	<b>99</b>

### 1.2.2. Jarduera-arloak.

Gasteizko Udalaren lankidetzaren onartzen diren deialdi eta hitzarmenen harira-proiektuak finantzatzera mugatzen dela pentsa baliteke ere, esan beharra dago Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren zeregina proiektuak bideratzen laguntzeaz harago ere iristen dela.

Alde batetik, bi esparru osagarri eta aldi berean berezitan esku hartzen du zerbitzuak:

- lankidetzaren (zentsurik zabalenean, hots, garatze bidean dauden herrialdeetarako garapenerako laguntza, giza laguntza nahiz giza eskubideak babesteko jardueretarako laguntza),
- sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza (zentsurik zabalenean, hots, herrialde horietako herriekiko elkartasuna sustatzen duten esku hartzeak).

Bestetik, berriz, urtean nahiz aurreko urteetan onartutako proiektuen jarraipenarekin du zerikusia Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak burutzen duen lanaren parte handi batek, baita, neurri txikiagoan bada ere, horien ebaluazioarekin ere.


Planifikazioari begira, hiru arlotan dago banatuta Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren lana:

- **Lankidetzaren**: garatzen ari diren herrialdeetako proiektuetarako –lankidetzaren proiektuetarako nahiz giza laguntzaren alorrekoetarako– urtero ematen diren diru-laguntzak onetsi eta finantzatzea, eta, inoiz, udal zerbitzuen laguntza teknikoa koordinatzea.
- **Sentsibilizazioa**: sentsibilizazioaren eta garapen-hezkuntzaren arloko jardueretara bideratutako urteko diru-laguntzak onestea eta finantzatzea, eta unean uneko bestelako informazio eta zabalkunde jarduerak egitea, baita tokian tokiko erakundeekiko edo lankidetzaren programetako bazkideekiko elkartrukeak ere.
- **Identifikazioa, jarraipena eta ebaluazioa**: aurkeztutako nahiz onartutako proiektuen jarraipen, kontrol eta ebaluazioarako hainbat lan (bai lankidetzaren arloan, bai sentsibilizazioarenean).

<sup>1</sup> Porcentaje calculado sobre el total de los Ingresos Corrientes (Capítulos 1 a 5 de Ingresos) efectivamente ejecutado por el Ayuntamiento.

2006ko aurrekontuan arlo bakoitzak zenbateko pisua izan duen erakusten du ondoko grafikoak:

### Lankidetzarako aurrekontua (2006), guztira, arloz arlo



#### Lankidetzarako aurrekontua (2006), guztira, arloz arlo

Lankidetzarako aurrekontua (2006), guztira, arloz arlo	
Lankidetzarako aurrekontua (2006), guztira, arloz arlo	2.169.943,24 €
Sentsibilizazioa, G.H., elkartrukeak	253.708,93 €
Jarraipena eta ebaluazioa	15.872,00 €
<b>Guztira</b>	<b>2.439.524,17 €</b>

2006ko gertakarien artetik, hauek nabarmendu daitezke:

- Garapenean Laguntzeko Zerbitzua sendotu egin da, hirugarren teknikari bat hartu duela bere baitan.
- ahaztutako krisialdien inguruan gizaldekoko ekintzetarako programa bat hautatzeko lehiaketa egin zen.
- zabaldu egin zen giza baliabideak babesteko deialdia; aurrerantzean ez da mugatuko jatorri politikoa duten gatazkek sortutako bortxakeria egoerara, baizik eta emakumeen kontrako bortxakeria, haurren kontrako eta abar ere hartuko ditu bere baitan.
- hainbat urterako lankidetzarako proiektuak identifikatzeko deialdia abian jarri zen, hainbat urterako proiektuen ziklo berria zabalduz.
- eta hainbat elkartruke egin ziren Gasteizen, elkarlanean diharduten Hegoaldeko erakundeetako pertsonen partehartzearekin.

#### 1.2.3. Diru-laguntzaren kudeaketa


Lankidetzarako aurrekontua gehienbat diru-laguntzara bideratzen denez, zilegi da galdetzea zein diren diru-laguntza mota desberdinak edo berariazko programak, zein arlo-ri dagozkien, zeinek kudeatzen dituen eta zein prozeduraren bitartez esleitzen diren.

2006an kudeatutako diru-laguntza programak eta horietara bideratutako diru-kopuruak ageri dira ondoko laukian:

Programak	€
Hainbat urterako lankidetzak proiektuak (2003ko deialdia) .....	1.000.000,00
Lankidetzarako urteko deialdia .....	350.000,00
Sahararako hitzarmena .....	245.550,00
Euskal Fondoarekiko hitzarmena .....	210.283,62
Paitako udalarekiko hitzarmena .....	52.100,00
Larrialdietarako Arabako Funtsa .....	156.687,31
Giza laguntzaren alorreko lehiaketa/programa .....	119.606,07
Giza eskubideak babesteko deialdia .....	80.000,00
Garapen hezkuntzako hainbat urterako proiektuak (2005eko deialdia) .....	76.600,00
GGKEen koordinakundearekiko hitzarmena .....	27.500,00
SETEMen prestakuntza programa .....	25.000,00
Sentsibilizatorako urteko deialdia .....	24.500,00
Bakeaz koadernoak .....	21.065,00
“Oporrak bakean” programa .....	16.500,00
“Lankidetzak irudietan” lehiaketa .....	2.040,00
<b>Diru-laguntzak, guztira .....</b>	<b>2.407.432,00</b>

Kontuan izanik zenbait programak arlo desberdinetako ekintzak nahasten dituztela (esate baterako, Sahararen kasuan, lankidetzak eta gizaldeko laguntza), zehaztutako hiru arlo handien arteko banaketa (lankidetzak, gizaldeko ekintza eta larrialdiak, sentiberritzea eta garapenerako hezkuntza) hauxe litzateke:

### 2006ko diru-laguntzak, arloz arlo



2006ko diru-laguntzak, arloz arlo	€
Lankidetzak	1.743.349,86
Gizaldeko ekintza eta larrialdiak	426.593,38
Sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza	237.488,76
<b>Guztira</b>	<b>2.407.432,00</b>

Aurreko urteen aldean izandako bilakaera erakusten du banaketa horrek (ehunekoen banaketa 80-10-10 ingurukoa izan ohi zen). Hona horren arrazoiak:

- ahaztutako krisialdien inguruan eragin handiagoko gizaldeko ekintzetarako programa bat abian jartzeko borondatea.
- Larrialdietarako Arabako Funtsari 2007ko beharrak aurreikusten zituen ekarpena egin izana.


Hauxe ageri da hurrengo grafikoan, 2006. urteari gagozkiola:

- diru-laguntzen % 89 GGKEek administratu dute.
- % 9a, berriz, Euskal Fondoak.
- % 2 Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak, Paitako (Peru) probintziako alkatetzarekiko hitzarmenaren baitan.

	€
GGKE	2.145.048,38
Euskal Fondoa	210.283,62
Zuzenean	52.100,00
<b>Guztira</b>	<b>2.407.432,00</b>

## 2006eko diru-laguntzak: zeinek kudeatzen dituzten

GGKE	2.145.048,38 €
Euskal Fondoa	210.283,62 €
Zuzenean	52.100,00 €
<b>Guztira</b>	<b>2.407.432,00 €</b>




Bestalde, lankidetzarako diru-laguntzen % 72 deialdien bitartez kudeatzen dira, eta % 28 hitzarmenaren bitartez. Gogora dezagun Gasteizko Udalak 2001ean onetsitako "lankidetzeta-hitzarmenak onartzeko oinarrietan" berariaz adierazten dela ezin dela diru-laguntzen herena baino gehiago bideratu hitzarmenetara.

	€
Deialdiak	1.533.140,00
Lehiaketa	119.606,07
Hitzarmenak	597.998,62
Larrialdietako funtsa	156.687,31
<b>Guztira</b>	<b>2.407.432,00</b>

## 2006eko diru-laguntzak: nola ematen diren

Deialdiak	1.533.140,00 €
Lehiaketa	119.606,07 €
Hitzarmenak	597.998,62 €
Larrialdietako funtsa	156.687,31 €
Guztira	2.407.432,00 €



### 1.2.4. Balorazioa eta hobetzeko proposamenak

Oro har, ontzat jo daitezke lankidetzaren kudeaketa eta horren emaitzak, bi aurrerakada kontuan hartuz gero:

- Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak martxoan hirugarren teknikari bat hartu izanak hobekuntza nabarmena ekarri du proiektuen jarraipenari dagokionez, eta, oro har, lankidetzaren programen kudeaketari dagokionez.
- Ahaztutako krisialdien inguruan gizaldekoko ekintzetarako programa bat hautatzeko lehiaketa egin izanak borondate bikoitza erakusten du: batetik, laguntzak ez zatikatzekoa, giza larrialdien testuinguruan beti izaki txiki horiek, aurre egin beharreko premien aldean, eta bestetik, berriz, Garapenerako Kontseilu osoa informazio programaren baitan murgilaraztekoa, hartara dena delako krisialdiak (kasu honetan Boli Kostako gerrak lekuz aldarazien arazoa) "hain ahaztua" egoteari utzi diezaion.

Lau xede nagusi azpimarra daitezke:

- Lankidetzaren ekintzek –eta bereziki giza eskubideekin eta giza krisialdiekin zerikusia dutenek– nolabaiteko informazio-eragina izan dezatela gure inguruan.
- Lankidetzaren inmigrazioaren arazoekin erlazioztatzea, ez bakarrik etorkin-taldeek garapenerako proiektuetan duten esku hartzearen eta etorkinen GGKE eta elkarrekin laguntzaren bidez, baizik eta, ahal izanik, baita beste ildo batzuk jorratuz ere, hala nola jatorrizko herrialdeetako erakundeekiko lankidetzaren eta elkartrukea, etorkin-taldearen arazoei beren herrialdeetako zenbait arazorekin duten zerikusia argitze aldera, bide horrek batzuen eta besteen interesei erantzun diezaikeela baitirudi.
- Lankidetzaren erabakimen handiagoz bideratzea, udal zerbitzuen parte-hartze teknikoarekin, hori izan bailiteke, dudarik gabe, udalen lankidetzaren balio erantsi nagusia.
- Erakunde batzuen eta besteen (udalak, diputazioak, autonomia erkidegoa, Espainiaren lankidetzaren arteko koherentzia handiagoa, elkar osatze egokiagoa ekarriko duten programa eta lankidetzaren esparruak bultzatzea.

Hiru arlo horien arabera dago egituratuta Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren 2006ko oroit-idazkia, bakoitzaren baitan azpi-programak eta jarduerak zehazten direlarik. Azken atalean, berriz, Garapenerako Kontseiluaren 2006ko jarduna laburbiltzen da.



## **2**

### **Lankidetzta programa**



## 2. LANKIDETZA PROGRAMA

'Lankidetza' hitza zentzurik zabalenean harturik (garatze bidean dauden herrialdeetan bideratzen diren ekintzak), eta deialdi bereizi edo hitzarmen bakoitza azpiprogramatzat jotz, lankidetza arloaren baitako azpiprogramen datuak zehazten ditugu alde batetik ondoren, eta bestetik, berriz, gizaldekoko laguntzaren eta larrialdien arlokoak. Azkenik, 2006ko lankidetzaren datu orokorrak ematen dira.

### 2.1. Lankidetza arloa

#### 2.1.1. Garapenean laguntzeko hainbat urterako proiektuetarako 2003ko deialdiari dagozkion ekarpenak

Gasteizko Udalaren lankidetza programa nagusia bihurtu da garapenean laguntzeko hainbat urterako proiektuetarako deialdia; izan ere, 1.000.000 €-ko kopurua hartzen du urtean. Deialdi horren baitan –2003an egin zen deialdia, alde aurretik “hainbat urterako proiektuak identifikatu eta taxutzeko deialdia” egin zelarik–, hiru edo lau urteko hamaika proiektu onetsi ziren. 2004an jarri ziren abian.

Deialdi horren baitan onetsitako proiektuak ageri dira ondorengo taulan, baita 2006. urteari dagozkion diru-laguntzak eta diru-laguntzen zenbateko osoa ere.

---

**Kodea:** P-01-ARG

**Proiektua:** Carolinako nekazaritza eremuetako emakumeen, lurrik gabeko familien eta ekoizle txikien osasuna, elikadura eta parte-hartzea sustatzea.

**Herraldea:** Argentina

**GGKE:** ADSIS fundazioa

**Diru-laguntza 2006:** 52.500 €

**Diru-laguntza Guztira:** 147.500 €

Osasun sorospena, 200 familiarentzat, astean lau egunez, komunitateko osasun zentroan. Urteko ikastaroa, komunitateko osasun zentroaren sustatzaileei prestakuntza emateko. Osasunaren hainbat arlotako prestakuntza: jaio aurrekoa, haurrak, emakumeak, famili plangintza, sexu heziketa, medikuntza naturala, familiako indarkeria, zaharrak. Zentroa osasunaren arloko beste esperientzia pribatu nahiz publiko batzuekin uztartzea.

Sustapen eta prestakuntza programa bat bideratzea Baratz zaintza Organikoaren eta Abelazkuntzaren arloan, Instituto Nacional de Tecnología Agropecuaria (INTA) erakundearekin koordinaturik. Emakume nekazarien sustapenerako programa bat bideratzea. Hezkuntza eta zabalkunde materialak egitea, inguru horretako familien bizitza kalitatea hobetze aldera.

---

**Kodea:** P-02-BOL

**Proiektua:** Ordenamiento territorial integral, democrático y participativo para el desarrollo local sostenible del cantón Germán Busch.

**Herraldea:** Bolivia

**GGKE:** Bakea eta Elkartasuna

**Diru-laguntza 2006:** 72.000 €

**Diru-laguntza Guztira:** 353.000 €

Kantoiko Lurralde Antolakuntzarako Plana taxutzea, hainbat alderdi bere baitan hartzen dituelarik: ekonomikoak, ingurumenari dagozkionak, legalak, sozialak, erakundeei dagozkiena... Garapenerako 7 proiektu aterako dira hortik. Hauxe dakar horrek berekin:

- 40 lider gaitzea (32 gizon eta 8 emakume), plangintza tresnak erabiltzeko gai izan daitezen.
- Hiru funtzionario gaitzea, sortuko den kantoiko Lurralde Antolakuntzarako Bulegoa kudeatzeko gai izan daitezen.
- Kantoiko emakumeen antolakuntza sendotzeko ikastaro eta lantegiak, emakumeek eskualdeko erabakitze organoetan presentzia aktiboagoa izan dezaten.

---

**Kodea:** P-03-COL

**Proiektua:** Emakumeen protagonismo politikoa sustatzea, beren komunitateetan (Medellin).

**Herraldea:** Kolonbia

**GGKE:** SETEM Hego Haizea

**Diru-laguntza 2006:** 107.000 €

**Diru-laguntza Guztira:** 439.000 €

Medellin inguruko lau udalerritan garatzen ari den proiektua. Honako hauek hartzen ditu bere baitan:

- Generoaren eta berdintasun politiken arloko programak, udalerrri bakoitzeko gizarte antolakundeetako emakumeei zuzendutakoak.
- Tokiko administrazioetako funtzionarioei zuzendutako ikastaro bat.
- Udalerrri bakoitzeko emakume gazteei zuzendutako gaikako mintegiak eta jarduerak ludikoak.
- Emakume gazteen agendak administrazioekin hitzartzeko jarduerak.
- Politika publikoak taxutzeko emakumeen eta funtzionarioen arteko lan-mahaiak eratu eta horietan laguntzea.
- Emakumeen lanaldiak gobernu erakundeetan.
- Emakumeen arazo eta beharrei buruz jarduteko foro eta katedrak.

**Kodea:** P-04-ELS

**Proiektua:** León de Piedra zentro eko-turistikoa

**Herrialdea:** El Salvador

**GGKE:** Mugen Gaietik

**Diru-laguntza 2006:** 101.500 €

**Diru-laguntza Guztira:** 416.500 €

Parke eko-turistikoa bat eraikitzea San Vicente sumendiaren magalean, Tecoluca udalerriaren. Bioaniztasuna eta baliabide hidrikoak zaintzeaz gain, ingurumenaren alorreko ikerketa eta hezkuntza sustatzeko aukera emango du parkeak, baita ingurumenean eragin gutxi duten aisialdi jarduerak garatu eta lanpostuak sortzeko ere. Udalerririko alkatetzak eta inguruko herriek parte hartuko duten erakunde misto batek kudeatuko du.

**Kodea:** P-05-ELS

**Proiektua:** Zazpi komunitateren garapen integratzailea, hezkuntza prozesuen eta genero harremanen aldakuntza bitartez

**Herrialdea:** El Salvador

**GGKE:** Solidaridad Internacional

**Diru-laguntza 2006:** 103.500 €

**Diru-laguntza Guztira:** 424.500 €

Tecapán eta Santiago de María (Usulután) udalerrietako herrietan garatzen ari da proiektua. Hauek hartzen ditu bere baitan:

- herrien beharrei erantzuteko parte hartze eta eragin maila handiagoak lortzera zuzendutako antolakuntza-prozesuetan laguntzea.
- hezkuntza proiektu integralak: gaitasun, jarrera eta balio berriak sustatzera zuzendutakoak, eta komunitatearen baliabideak baliatzeko orduan dauden genero-desberdintasunak ezagutzera.
- genero-desberdintasunak ulertu eta desagerrarazteko prozesuak: emakumeek komunitateetako erabakiguneetan parte hartze handiagoa izatera eta familien baitako indarkeriaren inguruko sentsibilizazioa areagotzera zuzendutakoak.
- bi alkatetzak horien politika sozialak, generoaren arlokoak eta ingurumenaren arlokoak abian jartzen direla bermatzeko estrategia, Gizarte Sustapenerako Unitateak sortuz.

**Kodea:** P-06-GUA

**Proiektua:** Sorospen integrala GIB/HIESa duten pertsoneri, Izabalen

**Herraldea:** Guatemala

**GGKE:** Mugarik Gabeko Medikuak

**Diru-laguntza 2006:** 93.500,00 €

**Diru-laguntza Guztira:** 375.500,00 €

GIB/HIESa duten pertsoneri, Puerto Barrios eta Livingston osasun barrutietan, lehen sorospenero zerbitzuetan nahiz ospitaleetan sorospen integrala eskaintzeko programa. Honako hauek hartzen ditu bere baitan:

- osasun publikoaren sisteman programa integratu bat abian jartzea.
- osasun egitura publikoetan nonahi ere izan beharreko arreta berezia jartzen dela ziurtatzea.
- GIB/HIESaren transmisio bertikala (haurdunak) murriztea.
- GIB/HIESa duten pertsonen jarraipen klinikoa bermatzea, baita profilaxia eta gaixotasun oportunisten tratamendua ere.
- ARV tratamendua jasotzeko aukera.
- taldeak antolatzea komunitatean, prestakuntza jarduerak eta prebentzioaren inguruko informazioa eskaintzea eta GIB/HIESa duten pertsonen laidoztatzea murriztea.
- gobernuko nahiz gobernuz kanpoko eragileak kontzientiaraztea, interesa eta borondate politikoa areagotzea.



**Kodea:** P-07-GUA

**Proiektua:** Edateko ura eramatea Champerico herrira

**Herrialdea:** Guatemala

**GGKE:** PROCLADE

**Diru-laguntza 2006:** 108.500 €

**Diru-laguntza Guztira:** 319.500 €

Ur sistema bat eraikitzea (ponpatze estazioa, desinfekzioa, banaketa sarea, biltegiak eta etxeetarako hodiak), 1.460 etxebizitzari zerbitzu hori eskaintzeko, ur enpresa misto bat abian jartzea, herritarren eta udalaren partehartzearekin.

**Kodea:** P-08-GUA

**Proiektua:** Ura eta saneamendua, Atilán lakuaren goi arroako 18 herritan

**Herrialdea:** Guatemala

**GGKE:** PTM-HMB

**Diru-laguntza 2006:** 101.500 €

**Diru-laguntza Guztira:** 416.500 €

- Ura atera eta banatzeko zortzi sistema berri eraikitzea, eta beste bi hobetzea.
- Hondakin solidoak eta likidoak tratatzeko sistema hobetzea 16 komunitetetan (komunak eta zabortegeak egitea barne), 565 familiarentzat.
- Arroako lurra hobetzea, 30 hektareatan zuhaitzak aldatuz.
- Udal Plangintza Bulegoa kudeatzeko gaitasuna areagotzea.
- Emakumearen Batzorde bat eratzea udalerrian, eta gizonezko nahiz emakumezko-  
ei zuzendutako hainbat lantegi egitea.

**Kodea:** P-09-GEC

**Proiektua:** Kogoko barrutiaren toki garaipenean laguntzea, osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte ehunaren sustapenaren bitartez.

**Herrialdea:** Ekuatore Ginea

**GGKE:** Asociación Africanista Manuel Iradier

**Diru-laguntza 2006:** 66.000 €

**Diru-laguntza Guztira:** 206.000 €

Osasunaren kudeaketa eta sorospena hobetzea, Kogoko barrutian. Besteak beste:

- barrutiko talde mugikorra eratzea.
- 16 osasun-postu sendotzea.
- egoera epidemiologikoaren ezagutza hobetzea.
- Eragin handiena duten gaixotasunen prebentzioari buruzko informazioa (HIESa eta sexu-transmisiozko gaixotasunak).

Gizarte ehuna sendotzea, ekintza soziokulturalak garatuz. Honako hauek egingo dira:

- Lehendik dauden 2 zentro soziokultural eraberritu eta hornitzea.
- Oinarrizko antolakundeak sortzea, sentsibilizazioa bultzatzeko hainbat arlotan: osasuna, generoa, ingurumena, kultura autoktonoa berreskuratzea eta ekoizpen ekimenak.

---

**Kodea:** P-10-NIC

**Proiektua:** Larreynaga udalerrian gobernagarritasuna sendotzea, genero, belaunaldi eta ingurumen ikuspegiak baliatuz

**Herrialdea:** Nikaragua

**GGKE:** Mugarik Gabe

**Diru-laguntza 2006:** 102.500 €

**Diru-laguntza Guztira:** 390.000 €

- Komunitateen garapenerako 53 ingurumen-plan eta udal ingurumen plan bat taxutzea.
- Eskualde komiteetako kideei zuzendutako 30 prestakuntza-lantegi egitea.
- Emakumeen antolakuntzak eskualde komiteetan eta udal garapenean, baita tokiko gobernuan ere duen eragina areagotzea, lantegiak egin eta Emakumeen Antolakunde Autonomoaren eragin plana taxutuz.
- Udal Ingurumen Atala sendotzea, bertan lan egiten dutenen prestakuntza bultzatuz eta ingurumen-hezkuntzako metodologi gidaliburuak argitaratuz.

---

**Kodea:** P-11-PER

**Proiektua:** Edateko ura eta ingurumen onbideratze iraunkorra nekazari-herrietan

**Herrialdea:** Peru

**GGKE:** Arabako Medicus Mundi

**Diru-laguntza 2006:** 93.500 €

**Diru-laguntza Guztira:** 390.500,00 €

Huanta (Ayacucho depart.) eta Churcampa (Huancavélica) udalerrietan garatuko da proiektua.

- 25 komunitate edateko urez hornitzeko sistema sortzea. Edateko ura hornitzeko 27 sistema eraikiko dira, grabitatez funtzionatuko dutenak (ur biltegi bat iturrian, ubidea, presioa hausteko ganberak eta ura etxeetara banatzeko sarea izango dituzte).
- Sistema horien administrazio batzarrak eratzea, eta bertako kideei prestakuntza eta aholkularitza eskaintzea.
- Populazioa sentsibilizatzea, higiene ohituren eta uraren kutsaduraren inguruan.



### 2.1.2. Lankidetzarako urteko deialdia

Hainbat urterako proiektuetarako deialdiak bereganatu duen munta dela eta, hala—ko diru-laguntzarik eskuratu ez duten GGKEek aurkeztutako jarduera bikietarako laguntzak emateko aukera eskain—tzen duen diru-laguntza programa bihurtu da urteko deialdia; 350.000,00 €-ko zuzkidura du, eta proiektu bakoitzeko gehienez ere 40.000 € ematen dira.

20 GGKEk aurkeztu zituzten proiektuak 2006ko deialdira, guztira 21 proiektu. Eskatutako diru-kopurua, guztira, 785.655,12 €-koa izan zen, erabilgarri zegoena halako 2,24.

Deialdiaren oinarrietan Afrikako proiektuei lehentasuna ematea eragina izaten ari da: diru-laguntza jaso zuten 11 proiektuetatik 7 Afrikan bideratzekoak ziren (6 Saharaz beheitiko Afrikan).

Ez da berdin gertatzen genero ikuspegia txertatzeari emandako lehentasunari dagokionez, oso apalak baitira atal horretan lortutako puntuazioak.

Deialdi honetan azpimarratu beharreko berrikuntza bat hauxe dugu: hiriko bi etorkin elkartek eskatu dute diru-laguntza beren jatorrizko herrialdeetan garapen proiektuak bideratzeko.



Hauk izan ziren diruz lagundutako proiektuak:

**Kodea:** 06-A-01-BOL

**Proiektua:** Edateko ur bideratzeko sistema, Chanchajlli (Chuquisaca) nekazari herrian

**Herrialdea:** Bolivia

**GGKE:** ADRA

**Diru-laguntza:** 33.500,00 €

28 familiak (174 biztanle) osatzen duten herrian ura bildu, hornitu eta kloratzeko sistema eraikitzea, bost iturri publiko izango dituena.

Orobat, osasunaren, ur sistemaren kudeaketaren eta antolakuntzaren alorreko prestakuntza jasoko dute herritarrek.

---

**Kodea:** 06-A-02-CHA

**Proiektua:** Dono-Manga barrutiko ospitaleko kanpo kontsulten blokea eraikitzea

**Herrialdea:** Txad

**GGKE:** Munduko Nekazaritza Funtsa

**Diru-laguntza:** 34.600,00 €

2005. urtean Bizkaiko Foru aldundiaren diru-laguntzarekin (143.200 €) egindako Dono-Manga barrutiko ospitalean kanpo-kontsulten blokea eraikitzea.

Osasun barrutia abian jartzera bideratua dago ekintza; herritarrek behar dituzten oinarriko osasun zerbitzuak eskaini ahal izango dira hartara.

---

**Kodea:** 06-A-03-CHA

**Proiektua:** Emakumeek benetako herritartasun zibil, politiko eta ekonomikoa lortzen laguntzea

**Herrialdea:** Txad

**GGKE:** Intermón Oxfam

**Diru-laguntza:** 34.400,00 €

2004ko deialdian laguntza jaso zuenaren jarraipena da, eta Txadeko 2.200 emakumeren status sozial, politiko eta ekonomikoa hobetzea du helburu.

Antolakuntzaren, teknikaren eta finantzen alorreko gaitasunak areagotu nahi dira, ekimen, negoziazio eta komunikazio gaitasun handiagoa izan dezaten erakundeen aurrean, eta merkaturatze sareak, ekoizpena eta alfabetizazioa hobetu. Orobat sendotuko da "entzute zentro" bat, bortxakeriaren biktima izan diren emakumeei laguntzen diena.

Emakumearen paperari eta egoerari buruz sentiberatu nahi dira emakumeak eta gizonak (bereziki bizi duten bortxakeriaren inguruan), emakumearen egoerari buruzko hiru azterlan egin (bereiztea, neskek eskolatik alde egitea eta emakume-antolakundeek etxe eta komunitateetako bizitzan duten eragina), eta politika aldakuntzak gerta daitezten presioa egin.

---

**Kodea:** 06-A-04-CDM

**Proiektua:** Osasunaren alorreko sentiberatze jarduera, Bouakeko barrutian. Paludismoaren eta ama eta haurren arteko HIES transmisioaren prebentziorako kanpaina

**Herrialdea:** Boli Kosta

**GGKE:** SERSO Euskalherria

**Diru-laguntza:** 25.200,00 €

Paludismoaren eta ama eta haurren arteko HIES transmisioaren prebentziorako lagundu nahi da.

Bouakeko 10 herritan lan egingo da. Bertako buruzagien onespina lortzeko ahaleginak egingo dira, osasun agente bat prestatuko da (paludismoaren inguruan), botika bat eratuiko da, sentiberatzeko ekintzak egingo dira, eltxo sareen erabilera sustatuko da eta parte-hartzea bultzatuko da, ur instalazioak eta osasungarritasun egoera hobetzeko. Gainera, doako kontsultak eta jarraipenak egingo dira, paludismo kasuetan.

Ama-haurrentzako bost zentrotan emakume haurdunak sentiberatuko dira, GIB/HIES azkar atzemateko probak egingo dira, tratamendua emango zaie emakume seropositiboek eta edoskitzea saihestuko da.

---

**Kodea:** 06-A-05-GEC

**Proiektua:** Gineako emakumeen heziketa-aren alde

**Herrialdea:** Ekuatore Ginea

**GGKE:** SOLIVE

**Diru-laguntza:** 34.600,00 €

Joskintzan espezializatutako zentro bat eraikitzea, emakumeen prestakuntza integrala, teknikoa eta profesionala ahalbidetzeko, baita horiek laneratzea ere, eta bizitza sozial eta komunitarioan parte-hartze aktiboa bultzatzeko.

Emakume liderren taldeak antolatuz komunitate osoa duintzea lortuko da.

---

**Kodea:** 06-A-06-LIB

**Proiektua:** Bergizarteratzen laguntzeko programa integrala, Tappitako barrutian

**Herrialdea:** Liberia

**GGKE:** Alboan

**Diru-laguntza:** 33.600,00 €

Tappitako barrutian berrikatzeko baldintzak hobetzea, oinarrizko nekazari-elkarteen elikapen-segurtasuna areagotuz eta barrutiko hiri ingurunean eta inguruan ikastetxe duinetara joateko aukera eskainiz.

Hiru ikastetxe eraberrituko dira, eta oinarrizko altzariak eta hezkuntza-materiala hornituko.

Oinarrizko 9 elkarteen antolakuntza-dinamikan lagunduko da, hainbat barazki lantza-koprostakuntza emango zaie, haziak banatuko eta biltegiak eraikiko. Zenbait abere hazteko gaituko dira, abereak erosiko eta horiek haziko.

---

**Kodea:** 06-A-07-MAR

**Proiektua:** Haurrak baztertera uztea prebenitzea eta bakarrik dauden amei laguntzea Agadirren

**Herrialdea:** Maroko

**GGKE:** Tierra de Hombres

**Diru-laguntza:** 34.200,00 €

Bakarrik dauden 140 amaren eta horien seme-alaben bizitza-egoera hobetzea, Agadirren. Horietatik 80 harrera-etxe batean hartuko dira, haurdunaldiaren zortzigarren hila-betean. 44 kasutan familia baketzea lortu nahi da, 75 emakumerentzako lana aurkitu eta 10i lanbide prestakuntza ematea. Gainera, sexualitateari eta kontrazepzio metodoei buruzko informazioa emango zaie 1.200 emakume eta neraberi, eta hainbat sentiberatze ekintza burutuko erakundeekin eta hedabideetan. Bertako GKEaren kudeatze gaitasuna indartzeko prestakuntza ekintzak egingo dira.

Neskameen prestakuntza hobetzea, Agadirren, beren garapen pertsonalaren perspektibak zabaltzeko, alfabetizazioz barne.

---

**Kodea:** 06-A-08-NIC

**Proiektua:** Gizarte eragileak sendotzea famili, komunitate eta udal esparruan, San Lucas udalerriaren inguruko eremuan, haur eta nerabe langileen eskubideak bete daitezen.

**Herrialdea:** Nikaragua

**GGKE:** Save the Children

**Diru-laguntza:** 33.800,00 €

Udal, komunitate eta famili esparruan lan egiteko jarduera-esparruan eraturia da proiektu hau, Hondurasekin muga egiten duen Nikaraguako eremuan haur eta nerabeek dituzten arriskuak murriztera bideratua, eta, beraz, haien eskubideak bete daitezela laguntzera eta, halaber, horien bizitza-baldintzak hobetzera, populazio sektore ahulena diren aldetik.

Haur eta nerabeen gaitasunak garatzera zuzendua egongo da esku-hartzea, haurren partehartzea sendotzeko, eta udal agintariengan eta gizartearen nahiz familian erantzukizuna duten eragilerik izan dezaten, hartara, beren lanean dituzten arrisku eta mehatxuez jabeturik, gizartearen aldeztu eta kontrolatze dezaten, prebentzioa ahalbidetuz, ahuleziaren murrizketaren bitartez.

---

**Kodea:** 06-A-09-PER

**Proiektua:** Eskoletako liburutegiak eta prestakuntza pedagogikoa, Piuran

**Herraldea:** Peru

**GGKE:** ADIPE-Araba

**Diru-laguntza:** 17.300,00 €

Castillako barrutiko giza kokaguneetako lehen hezkuntzako eskoletako hezkuntza-baldintzak hobetzera, haur eta gazteen garapen sozio-ekonomikoa bultzatzeko.

Liburutegiak antolatuko dira lehen hezkuntzako 10 eskolatan, eta bertako administrazio nahiz irakaskuntza langileak liburutegien funtzionamendurako gaituko, ikasleen artean irakurtzeko zaletasuna sustatzeko eta irakaskuntza/ikaskuntza prozesua hobetzeko.

Hamar eskola horietako 3.138 ikasle izango dira onuradun, eta guztira administrazio 40 langile eta 100 irakasle gaituko dira.

---

**Kodea:** 06-A-10-RWA

**Proiektua:** Jostintzan prestatzeko zentroa, Kagugun

**Herraldea:** Ruanda

**GGKE:** SOLIVE

**Diru-laguntza:** 34.600,00 €

Jostintzan espezializatutako zentro bat eraikitzea, emakumeen prestakuntza integrala, teknikoa eta profesionala ahalbidetzeko, baita horiek laneratzea ere, eta bizitza sozial eta komunitarioan parte-hartze aktiboa bultzatzeko.

Emakume liderren taldeak antolatuz komunitate osoa duintzea lortuko da.

---

**Kodea:** 06-A-11-RUM

**Proiektua:** "Etorkizuna itxaropenez". Haur eta gazteei laguntza ematea.

**Herraldea:** Errumania

**GGKE:** Compartir

**Diru-laguntza:** 34.200,00 €

2004an onetsitakoaren jarraipena da proiektua, eta babesgabeko sektoreetako haur eta gazteei laguntzea du helburu, eta garapen integrala bultzatzea hezkuntzaren bitartez.

GGKEak Draganun duen hezkuntza eta kirol esparrua eraiki eta homitzen jarraitu nahi da, eta bertan jarduerak bideratu, beste herrialde batzuetako boluntarioekin.

### 2.1.3. Saharako herriarekiko lankidetzaren eta elkartzaren hitzarmena

Nahiz eta begi-bistakoa den bideratzen diren ekintzetako asko gizaldekotzat laguntzari dagozkiola, lankidetzaren arloan sartzen dugu saharar herriarekiko lankidetzaren eta elkartzaren hitzarmena. 1995ean izenpetu zen hitzarmen orokorra Arabako RASDaren Lagunen Elkartarekin, eta urtez urte zehazten dira programak horren ildotik. Guztia ere errefuxiatuta bizi direnen egoeraren eta Mendebaldeko Saharako bake prozesuaren gorabeheren testuinguruan ulertu beharra dago. "Ez gerra, ez bake" testuinguruan, Marokoko NBERen ekimenez izenpetutako akordioak betetzen ez dituen honetan, bake prozesua geldirik, nolabaiteko bizimodu duinari eusten lagundu nahi die Saharako programak Tindufeko kanpamenduetan bizi diren errefuxiatuei, baita dagoeneko hogeita hamar urte baino gehiago errefuxiatuta bizitzen daramaten herritarrei itxaropenari eusten lagundu ere.

Testuinguru politiko zail horretan, aipatzekoa da arrakasta handiz egin zela gure hirian Saharako Herriarekiko Elkartzaren Koordinatzaile Europako XXXII. Konferentzia. Horrekin batera, honako hauek osatu dute 2006ko plana:

---

**Kodea:** 06-SA-01

**Proiektua:** Saharako errefuxiatuentzako osasun programa

**Ekarpena:** 44.000,00 €

**Azalpena:** Otorrinolaringologia eta oftalmologia adituen kirurgia misioak ahalbidetzen ditu proiektuak kanpamenduetan –saharar osasun sistemak bidaltzen dizkieten kasuetan egiten dituzten ebakuntzak–, baita osasun sistema neurri batean hornitzea ere (tresneria eta ebakuntza gelako, kontsultako nahiz laborategiko ekipoak berritzea). Programako tresneria nahiz osasun sistemako beste batzuk onik zaintzea, behar diren ordezkioak hornitzea. Aurten kirurgia taldearen joanaldi bakarra planteatzen da.

---

**Kodea:** 06-SA-02

**Proiektua:** Erizaintzaren irakaskuntzarako pedagogi berrikuntza eta laguntza

**Ekarpena:** 48.000,00 €

**Azalpena:** Hauek dira aurten gauzatzeko diren jarduerak:

- Anatomia eta Fisiologia eta Medikuntza-Kirurgia Patologia eskuliburuak egin eta argitaratzea.
- Pediatría eta Erizaintza eskuliburuak taxutu eta inprimatzea.
- Kanpamenduetako irakasleak prestatzeko eta osasun-langileak birziklatzeko jarduerak.
- Eskolako ikasleei zuzendutako hiru praktika-ikastaro.

---

**Kodea:** 06-SA-03

**Proiektua:** Informazio azpiegiturarako laguntza

**Ekarpena:** 7.000,00 €

**Azalpena:** Saharar Irrati Nazionalaren uhin laburreko transmisorerako konpondutako bi maskor hornitzea.

---

**Kodea:** 06-SA-04

**Proiektua:** SEBN sendotzea. Emakumeen etxea, Smara wilayan

**Ekarpena:** 11.000,00 €

**Azalpena:** Smarako Emakumearen Etxeko obrak bukatzera eta prestakuntza jarduerak egitera bideratua dago proiektua, baita UNMSaren kanpo jarduera zenbaitetarako laguntza ematera ere.

---

**Kodea:** 06-SA-05

**Proiektua:** Lanbide heziketa: Gazuani institutua

**Ekarpena:** 33.000,00 €

**Azalpena:** Eraberritze obrak egitea Gazuaniko Lanbide Heziketako ikastetxean, 2006ko uholdeek egindako kalteen ondoren, eta bertan behera utzi behar izan zen prestakuntza programari berriro ekitea.

---

**Kodea:** 06-SA-06

**Proiektua:** Zerbitzu publikoetako pizgarrien sistemari laguntzea

**Ekarpena:** 8.879,00 €

**Azalpena:** Proiektuen zuzeneko kostuen % 5 pizgarrien sistemara bideratzen da, hainbat zerbitzu publikoren funtzionamendua bermatze aldera (osasuna, hezkuntza, garraioa eta abar). Gasteizko Udalaren ekarpena, hasiera batean, Lankidetzeta Ministerioko langileei pizgarriak emateko baliatuko da.

---

**Kodea:** 06-SA-07

**Proiektua:** Sentsibilizazioa: "Hacia el mundo con tus ojos" bideo dokumentala

**Ekarpena:** 9.000,00 €

**Azalpena:** Bideo dokumental bat egin eta ekoiztea: filmazioak, elkarriketak eta errefuxiatu jendeak erabili eta botatzeko kamerekin ateratako argazkiak.

---

**Kodea:** 06-SA-08

**Proiektua:** Janarietarako laguntza

**Ekarpena:** 26.300,00 €

**Azalpena:** Saharako Ilgora Gorriak oinarrizko zenbait janari (dilitak, azukrea, irina eta abar) erostea Aljeriako merkatuan eta kanpamenduetara garraiatzea, herritarren artean banatzeko; izan ere, NBEren janari-laguntzek izandako murrizketak eragin handia izan du janari stocketan.

---

**Kodea:** 06-SA-09

**Proiektua:** Ospitaleetako mantentze lanak

**Ekarpena:** 8.837,24 €

**Azalpena:** Mantentze sistema nagusi bat abian jartzea, ospitale eta osasun zentroei laguntzeko, uraren, argindarraren, aire girotuaren eta elektromedikuntzaren arloetan.

**Kodea:** 06-SA-10

**Proiektua:** XXXII. EUCOCO konferentzia

**Ekarpena:** 11.000,00 €

**Azalpena:** Saharako Herriekiko Elkartasuna Koordinatzeko Europako XXXII. Konferentzia (EUCOCO) Gasteizen izan zen, azaroaren 3tik 5era bitartean, eta parte hartze handia izan zuen: 600dik gora lagun, elkartasun-elkarte nahiz erakunde publikoetakoak.

Zeharkako kostuak .....	13.700,00 €
2005eko zeharkako kostuen gerakina .....	5.550,00 €
Guztira .....	245.550,00 €

#### 2.1.4. Euskal Fondoarekiko hitzarmena

Euskal Fundoa - Asociación de Entidades Locales y Forales Vascas Cooperantes elkar-teko kide da Gasteizko Udala, eta 1998an izenpetutako hitzarmen orokor baten bidez arau-tuta dago erakunde horrekiko lankidetzaren bitartean. Horren baitan, hainbat plan eragile onesten dira urtez urte, bideratuko diren jarduerak eta proiektuak nahiz bakoitzak egingo dituen ekar-penak finkatzeko.

Jarduera hauek hartu zituen bere baitan 2006ko programak:

**Kodea:** 06-EF-01-ELS

**Proiektua:** Berdintasun eta demokrazia handiagoko udalerririk erakitzen (Cuscatlán depart.) III. fasea

**Herrialdea:** El Salvador

**Ekarpena:** 103.212,37 €

**Azalpena:** 2004an hasitakoaren jarraipena da proiektua, Genero Berdintasunerako Ud-al Atalen jardueraren jarraipen izateaz gain.

**Kodea:** 06-EF-02-GUA

**Proiektua:** 3,640 kilometroko landa bidea egitea, Semelvihá eta Arenal Sechacti herrien artean.

**Herrialdea:** Guatemala

**Ekarpena:** 10.201,61 €

**Azalpena:** Guatemalako Alta Verapaz departamentuko Fray Bartolomé de las Casas udale-rrian garatzen da proiektua.

3,6 kilometroko landa bidea egitea, Arenal Sechacti herrirako bidean.

**Kodea:** 06-EF-03-NIC

**Proiektua:** Auzoetako (San Carlos) ur zikinen sistemak eraikitzea

**Herrialdea:** Nikaragua

**Ekarpena:** 81.586,02 €

**Azalpena:** Ur zikinen tratamendurako sare eta aska sistema bat eraikitzea, 423 etxebizitzaren ur zikinak tratatzeko –1.912 biztanle–. Bi urtetan egingo da.

---

**Kodea:** 06-EF-03

**Proiektua:** EHuko ikastaldia

**Ekarpena:** 5.000,00 €

**Azalpena:** Karrera amaierako ikastaldiak lankidetzaproiektuetan egiteko programa. Bereziki, Arabako campuseko Gizarte Laneko Eskolak eta Irakasle Eskolak parte hartuko dute programa horretan.

Bazkide kuota .....10.283,62 €

Guztira .....210.283,62 €

### 2.1.5. Paitako (Peru) probintziako alkatetzarekiko hitzar–mena

Gasteizko Udalak eta Paitako (Peru) probintziako alkatetzak sinatutako hitzarmen berri honek proiektu bakar bat hartzen du bere baitan:

---

**Kodea:** 06-PA-01-PER

**2006ko proiektuak:** Paitako C.N. Nuestro Señor de los Milagros ikastetxean ikasgelak eraikitzea

**Herraldea:** El Salvador

**Ekarpena:** 52.100,00 €

**Azalpena:** Bi ikasgela berri egingo dira hogeita hamarreko urtetan eraikitako ikastetxe publiko horretan; izan ere, oso hondatua dago, eta ikasleak metatuta. Paitako probintziako alkatetzaren eta ikastetxeko Hezkuntza Kontseiluaren laguntzarekin gauzatzeko da proiektua.

## 2.2. Gizaldeko ekintza, giza eskubideak babestea eta larrialdiak

### 2.2.1. Ahaztutako krisialdien testuinguruan gauzatzeko gizaldeko ekintza programa bat hautatzeko lehiaketa

2006. urtean egin zen lehenengoz deialdi mota hori. Nahiko berezitua da, eta gizaldeko laguntzen alorrean eskarmentua eta gaitasuna lehendik erakutsiak dituzten GGKEetara mugatua. Horregatik, proiektu kopuru txikia aurkeztea espero zen, lauzpabost izan zitezkeela uste bazen ere. Azkenean, ordea, bi bakarrik aurkeztu ziren, eta hauek izan litezke horren arrazoiak:

- Deialdiaren baitako zenbait eskakizun erabat berriak ziren; bereziki, tokian tokiko ekintza hirian burutu beharreko berariazko informazio eta sentiberatze programa batekin uztartu beharra. Horrenbestez, eskabide bakoitzeko elkarrekin zerikusia zuten bi proiektu aurkeztu behar ziren nolabait: bata tokian-tokian burutzekoa, bestea Gasteizen gauzatzekoa.
- Gaia ere aski mugatua zen: gizaldeko krisialditzat jotzen direnen artetik, "ahaztutako krisialdi"tzat jo zitezkeenak bakarrik hartuko ziren aintzat.
- Proiektuak aurkezteko epea motz gertatu zen beharbada, giza krisialdien testuinguruan halakoak taxutzeko aparteko zailtasunak izaten baitira, komunika–zioari, infor-



mazioa eskuratzeari eta besteri dagokionez. Izan ere, azkenik eskabiderik aurkeztu ez zuen hirugarren GGKE batek horixe adierazi zuen, denbora aski izan ez zuelako ez zuela aurkeztu proposamena.

Ahaztutako krisialdien testuinguruan gauzatzeko gizaldekoko ekintza programa bat hautatzeko lehiaketa horretara 120.000 € bideratu ziren guztira 2006. urtean, gizaldekoko ekintza proiektu bakar bati diru-laguntza emateko.

Bi GGKEk aurkeztu zituzten proiektuak lehiaketara, guztira bi proiektu, eta eskatutako diru-kopurua, guztira, 239.606,07 €-koa izan zen, erabilgarri zegoena halako bi.

Proiektu hau aukeratu zen:

**Erakundea:** SERSO Euskalherria

**Proiektua:** Gerrak lekuz aldarazitako herritarrak beren jatorrizko bizilekuetara itzuli eta bergizarteratzea

**Herrialdea:** Boli Kosta

**Diru-laguntza:** 119.606,07 €

**Azalpena:** Gerrak lekuz aldarazitako 148 familiaren (684 pertsona) itzulera eta gizarteratzea prestatu eta erraztu nahi da, herrialdearen hegoaldean (Abidjan) iparreko beren jatorrizko bizilekuetara (Bandama eskualdea).



Aldez aurreko azterketan eta programa egituratu batean oinarritutako bergizarteratze plana abian jarri nahi du proiektuak, lekuz aldatutako familia horiek beren jaioterrietara itzuli eta lehengo bizimoduari ekin diezaioten.

Orobat lagundu nahi da okupatuta egon diren eskualdeetako herrien ehun sozioekonomikoa eta psikosoziala berregiten, gerora izan litezken herri barruko nahiz herrien arteko liskarrak ekiditeko.

### 2.2.2. Convocatoria de "Apoyo a la protección de los derechos humanos en países en vías de desarrollo"

Garapenerako laguntzaren alorrean lan egiten hasi zenetik bultzatu izan ditu Gasteizko Udalak giza eskubideak babesteko programak.

Laguntzak mugatuak izaki, osotasun fisikoa arriskuan zuten pertsonak babestea eta laguntzea helburu zuten ekintzetarako bakarrik eman ohi zen laguntza aurreko urteetan. Nolanahi ere, mundu osoan beren eskubideak maiz bortxatuak ikusi ohi dituzten hiru multzotara zabaldu ziren laguntzak 2006an: emakumeak, haurrak eta espetxeratuak. Horrenbestez, 80.000,00 euro bideratu ziren horretara, eta orain arteko babeste eta laguntze ekintzez gain beste hauek ere sartu ziren oinarrietan:

- emakumeen eskubideak urratzearen kontrako borrokan aritzeko jarduerak programak,
- emakumeen kontrako diskriminazioaren inguruko adierazpenak,
- genero-indarkeria: bortizkeria fisiko zein psikologikoa, emakume eta neskatilen trafikoa eta abar.
- haurrak babesteko eta haiek artatzeko programak,
- laguntza espetxeetan: laguntza osoa, lege aholkularitza, osasun-laguntza eta psikologikoa, hezkuntza.

Horretaz gain, deialdi honekin, egoera horiei, gertatzen diren testuinguruei, gertatze-ko arazoiei eta alderdiei nahiz konponbidea lortzen lagundu dezaketen ekintzei buruzko informazio eta sentsibilizazio lanean lagundu nahi da.

Aurkeztutako proiektu kopurua	Onartutako proiektu kopurua	Eskatutako kopurua, guztira	Emandako kopurua, guztira
6	3	157.754,68 €	80.000,00 €

Hauek izan ziren diruz lagundutako proiektuak:

**Kodea:** 06-DH-01 COL

**Proiektua:** Kolonbian giza eskubideen eta lekuz aldatutako komunitateen defendatzaileak babesteko nazioarteko laguntza

**Herraldea:** Kolonbia

**GGKE:** Brigadas Internacionales de Paz / PBI-Gasteiz

**Diru-laguntza:** 27.500,00 €

**Azalpena:** Nazioarteko 32 begirale Kolonbiako hainbat eskualdetan banatu eta mantentzea, giza eskubideen babesleak eta lekuz aldatu beharrean egokitu diren herritarrak babesteko eta trauma psikosoziala oneratzeko.

Bertako erakundea: Brigadas Internacionales de Paz / PBI-Kolonbia.

**Kodea:** 06-DH-02 NIC

**Proiektua:** Tokian tokiko gaitasunak sendotzea, Nikaraguan haur salerosketa galarazteko

**Herraldea:** Nikaragua

**GGKE:** Save the Children fundazioa

**Diru-laguntza :** 34.000,00 €

**Azalpena:** Haur eta nerabeen salerosketaren arazoari aurre egin nahi zaio, prebentzioaren bitartez, herralde horretan dagoen eredia abiapuntuztat hartuta. Sentiberatzea eta eragileen prestakuntza izango dira strategi ardatzak, eta ikastetxeen bitartez bideratuko da programa. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa (Programa Educación para la Vida) eta Save the Children fundazioa dira bertako erakundeak.

**Kodea:** 06-DH-03 AFG

**Proiektua:** Preso dauden emakumeen eta horien kargu dauden haurren bizitza-bal-dintzak hobetzea, Afganistango kartzeletan

**Herraldea:** Afganistan

**GGKE:** María de Maeztu Forum Feminista, Asociació per als Drets Humans a l'Afganistan (ASDHA) elkartearekin partzuergoan

**Diru-laguntza :** 18.500,00 €

**Azalpena:** Mazar-e-Sharifgo kartzelan preso dauden emakumeen eta horien seme-alaben egoera hobetu nahi da. Laguntza medikoa, higiene produktuak eta janaria emango zaie, baita laguntza legala, alfabetatzea eta lanerako prestakuntza ere.

Afghan Women's Educational Center (AWEC) da bertako erakundea.



### 2.2.3. Larrialdietarako Arabako Funtsa

Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiak eta Vital Kutxak jarri zuten abian Larrialdietarako Arabako Funtsa 2005. urtean, garatzen ari diren herrialdeetako larrialdi egoeretan esku hartzeko aukera emango zuen tresna arin eta eraginkor bat izateko asmoz.

Erakunde horiei garatzen ari diren herrialdeetako larrialdi egoeretan laguntzeko aukera emango dien tresna gisa dago pentsatua, beraz, funts hori; hartara, laguntza ekonomiko azkarra eman ahal izango zaie, unean-unean, larrialdietan esku hartzeko gaitasuna frogatua duten erakundeei. Protokolo bat finkatua dago laguntzak onesteko, urtez urte berrikusi eta, behar izanez gero, aldatu ahal dena.

Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak egindako ekarpenak Vital Kutxa fundazioaren barruko kontabilitate-kontu batean jasota geratzen dira. Hartara, esleitzeko erabakia onetsi bezain laster ordaintzen ditu laguntzak Vital Kutxa fundazioak.

2006. urtean larrialdiko esku-hartze hauetarako eman zen laguntza:

---

**Kodea:** 06-FAE-01-SAH

**Proiektua:** Jaimak, botikak eta janariak hornitzea, Tindoufeko kanpamenduetan izandako uholdeen ondoren

**Herrialdea:** RASD

**GGKE:** Arabako RASDaren Lagunen Elkartea

**Ekarpena:** 40.000,00 €



---

**Kodea:** 06-FAE-02-IDS

**Proiektua:** Javako lurrikarak eragindako herrietan ingurumena garbitzea

**Herrialdea:** Indonesia

**GGKE:** Espainiako Gurutze Gorria

**Ekarpena:** 60.000,00 €

---

2007an larrialdiei aurre egiteko funtsak hartzen ditu bere baitan Gasteizko Udalak 2006an egindako ekarpenak:

---

Larrialdietarako Arabako Fondorako ekarpena, guztira ..... 156.687,31 €


---

### 2.3. Gasteizko Udalaren lankidetzaren datu nagusiak

#### 2.3.1. Lankidetzeta eta gizaldeko ekintza

A efectos de cálculo, hemos considerado acciones humanitarias la acción seleccionada por concurso, el monto destinado a ayudas de emergencia, las incluidas en la convocatoria de protección a los Derechos Humanos, así como aquellas acciones incluidas en el Programa Sáhara que son claramente de tipo humanitario (es decir la ayuda alimentaria y el proyecto quirúrgico "Salud para el pueblo saharauí").

### 2006eko lankidetzeta eta gizaldeko ekintza



#### 2.3.2. Herrialdeen araberako banaketa

Ez ditugu banaketa geografikoan sartu larrialdiko laguntzari dagozkion datuak, batetik izan litezkeen larrialdietarako egiten delako ekarpena (horregatik, 2006ko funtsen parte bat oraindik erabili gabe dago), eta, bestetik, beste bi erakundeekin batzen direlako.

Halaber, ez diogu inongo herrialderi esleitu Euskal Fondoko kuota; bai, ordea, RASDaren Lagunen Elkartearakiko hitzarmenaren zeharkako kostuak.

Beraz, lankidetzari, gizaldeko ekintzei eta giza eskubideak babesteko ekintzei baino ez dagozkie datu hauek:

Herrialdea	Monto
Afganistan .....	18.500,00 €
Liberia .....	33.600,00 €
Maroko .....	34.200,00 €


Errumania .....	34.200,00 €
Ruanda .....	34.600,00 €
Argentina .....	52.500,00 €
Txad. ....	69.000,00 €
Ekuatore Ginea .....	100.600,00 €
Bolivia .....	105.500,00 €
Kolonia .....	134.500,00 €
Boli Kosta .....	144.806,07 €
Peru .....	162.900,00 €
RASD .....	206.266,24 €
Nikaragua .....	251.886,02 €
El Salvador .....	308.212,37 €
Guatemala .....	311.701,61 €

Ohiko sakabanaketa ageri ohi da, 16 herrialdetan esku hartu baita. Hainbat urterako deialdiko proiektuak erabakigarriak dira herrialdez herrialdekako banaketari dagokionez:

- Hainbat urterako hiru proiektu Guatemalan ari dira gauzatzen, eta Euskal Fondoaren programa bat gehitu behar zaie horiei.
- Bi El Salvadorren, eta Nezaparekiko hitzarmena eta Euskal Fondoaren proiektu bat gehitu behar zaizkie horiei.
- Peruk ere badu pisurik, hainbat urterako proiektu bakar batekin, baina urteko deialdiaren baitako beste hirurekin.

Saharako Errepublika Arabiar Demokratikora, hau da, Tindufeko errefuxiatuen kanpamenduetara bideratutako diru-kopurua, berriz, RASDaren Lagunen Elkartearikiko hitzarmenari zor zaio, eta Boli Kostara bideratutakoa gizaldeko laguntzari eta urtebeteko proiektu bati.


## Lankidetzaren eta giza laguntza (2006), herrialdez herrialde



### 2.3.3. Geografi eremuen arabeko banaketa

Gehienbat Ertamerika eta Karibea nabarmentzen dira oraingoan ere. Magrebek duen pisua RASDarekiko lankidetzari eta Marokoko proiektu bati zor zaie. Aldi berean, nabaritzen hasia da urteroko deialdian Saharaz behetiko Afrikari lehentasuna eman izanaren eragina.

Geografi eremua	Diru-kopurua
Ertamerika eta Karibea.....	769.300,00 €
Hegoamerika.....	557.900,00 €
Saharaz behetiko Afrika.....	382.606,07 €
Magreba.....	240.466,24 €
Europa.....	34.200,00 €
Asia.....	18.500,00 €
Guztira.....	2.002.972,31 €



# **3**

## **Sentiberatze programa**





### 3. Sentiberatze programa

Garapenerako laguntzaren alorreko jarduerak abian jarri zituenez geroztik, beti uste izan du Gasteizko Udalak laguntza horren jomuga nagusietako bat elkartasunaren kultura sustatzeak izan behar duela. Horrenbestez, GGKEek egiten duten sentiberatze lanerako eta garapenerako hezkuntzarako ere ematen du laguntza, horretarako berariaz atondutako diru-laguntza deialdien bidez nahiz hitzarmenen bidez.

Alde batetik, deialdi publikoen nahiz hitzarmenen baitan diru-laguntza jaso zuten sentiberatze ekintzei eta garapenerako hezkuntzaren alorreko buruzko informazioa ematen da ondoren, eta bestetik, berriz, informazioaren, zabalkundearen eta prestakuntzaren arloan 2006. urtean Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak bultzatu zituen edo esku hartu zuen ekintzei buruzkoa.

#### 3.1. Diru-laguntza deialdiak

##### 3.1.1. Diru-laguntza deialdia: "Garapenerako Hezkuntzako zenbait urterako baterako proiektuak finantzatzea"

Deialdi horren baitan –2005ean egin zen deialdia, aldezturik "Garapenerako Hezkuntzarako zenbait urterako baterako proiektuak identifikatu eta taxutzeko deialdia" egin zelarik–, hiru ikasturteko iraupeneko bi proiektu onetsi ziren, zein 2005/2006 ikasturtean jarri baitziren abian.

Zorrotz identifikatu eta formulatutako xede-talde berarekin modu jarraituan gauzatze-ko hezkuntza proiektuetarako laguntza eman nahi izan da horren bitartez.

Taula: Garapen-hezkuntzako zenbait urtetarako baterako proiektuak finantzatzeko deialdiaren datu orokorrak:

Aurkeztutako proiektu kopurua	Onartutako proiektu kopurua	Eskatutako kopurua, guztira	Emandako kopurua, guztira
3	2	325.648,43 €	222.400,00 €

Hauek izan ziren diruz lagundutako proiektuak:

---

**Kodea:** 06-EDP-01

**Proiektua:** "Aquí y allá, jugando a soñar". Elkartasunaren, gatazka-konponketaren eta haurren eskubideen inguruko balioei buruzko hezkuntza.

**GGKE:** Serso Euskalherria (partzuergo buru), Gizakien lurra eta Arduradun Eskola.

**Subvención 2006:** 27.500,00 €

**Subvención Total (3 cursos):** 82.600,00 €

**Azalpena:** Garapen hezkuntzako eta balioei buruzko hezkuntzako proiektua, arlo ez formalean, GGKEetan eta aisialdi hezitzaileen boluntarioen parte hartzea bultzatu nahi duena.

---

**Kodea:** 06-EDP-02

**Proiektua:** Consumo consentido, Consume con sentido".

**GGKE:** Paz y Solidaridad fundazioa (partzuergo buru), Mugarik Gabe eta SETEM Hego Haizea.

**Subvención 2006:** 49.100,00 €

**Subvención Total (3 cursos):** 139.800,00 €

**Azalpena:** "Egin bira lurbari" programatik sortutako proiektua; kontsumo arduratsuen eta horren hainbat alderdiren inguruan kontzientzia harrarazten laguntzea helburu duena: elikapen subiranotasuna, lan eskubideak, bidezko merkataritza, erosketak publiko etikoa, aztarna ekologikoa...

---

### 3.1.2. Gasteizen burutzeko nazioarteko elkartasunaren alorreko sentiberatze jarduerak finantzatzeko laguntzeko diru-laguntza deialdia

Gasteiztarren artean elkartasun jarrerak sustatzen dituzten ekintzak bultzatzea du helburu deialdiak. Informazio eta jendea arazoez jabeaztearekin lotutako unean uneko sentibilizazio ekintzak dira horiek, garatze bidean dauden herrien egungo egoeraren berri izan dezan hartara jendeak, eta herrialde pobre horien eta aberatsen arteko alde handiak bere horretan irautearen arazoiez ohar dadin, bai eta batzuk nahiz besteak eraginpean hartzen dituzten arazoen arteko loturez ere.

2005. urtean GGKEen edo bestelako erakundeen partzuergoek batera egindako garapenerako hezkuntzako hiru urterako proiektuetarako deialdia bakarrik egin bazen ere, 2006. urtean sentiberatze deialdia propio bat egin zuen berriro Gasteizko Udalak, bi atal bereiziz bertan:

- A atala: GGKE eta elkarteen partzuergo edo sareek aurkeztutako sentiberatze eta informazio ekintzak.
- B atala: GGKEek bakarka aurkeztutako sentiberatze eta informazio ekintzak.

Hasiera batean 40.000,00 € jarri ziren sentiberatze deialdirako (25.000,00 € A atalerako eta 15.000,00 € B atalerako). Hala ere, 24.500,00 €-ra arteko diru-laguntzak baino ez ziren eman azkenean.

Gasteizen burutzeko nazioarteko elkartasunaren alorreko sentiberatze jarduerak finantzatzen laguntzeko deialdiaren datu orokorrak

Aurrekontua	Aurkeztutako proiektu kopurua		Onartutako proiektu kopurua		Eskatutako kopurua, guztira		Emandako kopurua, guztira	
	A atala	B atala	A atala	B atala	A atala	B atala	A atala	B atala
40.000,00 €	3	8	2	7	19.460,17€	14.593,00€	12.000,00€	12.500,00€

Hauk izan ziren diruz lagundutako proiektuak:

#### A atala:

**GGKE eta elkarten partzuergo edo sareek aurkeztutako sentiberatze eta informazio ekintzak**

**Kodea:** 06-SSA-01

**Proiektua:** Ameriketako Etxea, lehen kultur jardunaldia

**GGKE:** Kolonbia-Euskadi partzuergoa eta Euskadiko Voz y Presencia Democrática Inmigrante

**Diru-laguntza:** 5.500,00 €

**Azalpena:** Latinamerikarekiko elkartasuna sustatzeko informazio kanpaina, Gasteizko hainbat latinoamerikar talderen partehartzearekin.

**Kodea:** 06-SSA-02

**Proiektua:** Alto y claro: Las mujeres hablamos

**GGKE:** PTM-Mundu bat partzuergoa eta Círculo Solidario

**Diru-laguntza:** 6.500,00 €

**Azalpena:** Hegoaldeko herrialdeetako emakumeen borrokei buruz astea (hitzaldiak, antzerkia, film dokumentala, argazki erakusketa), estereotipoak aldatu nahian.

#### B atala:

**GGKEek bakarka aurkeztutako sentiberatze eta informazio ekintzak**

**Kodea:** 06-SSB-01

**Proiektua:** Inbertsio etikoek merkatua.

**GGKE:** Setem Hego Haizea

**Diru-laguntza:** 700,00 €

**Azalpena:** Hitzaldia, Luis de Ajuria aretoan, banku-merkatuak inbertsio etikoek alorrean eskaintzen dituen produktuen inguruan.

---

**Kodea:** 06-SSB-02

**Proiektua:** Mundu Berriko merkatariak. Bidezko merkataritzaren bideragarritasuna, Gasteizen.

**GGKE:** Setem Hego Haizea

**Diru-laguntza:** 1.800,00 €

**Azalpena:** Produktuak saldu eta informazioa emateko lekua, ezagutza-mailari buruzko zuzeneko inkesta eta Gasteizen bidezko merkataritze baldintzatzen duten ezaugarriak aztertze mintegia.

---

**Kodea:** 06-SSB-03

**Proiektua:** Guatemala: Brindemos una oportunidad a los jóvenes pandilleros.

**GGKE:** Asociación ARCO para la Resolución de Conflictos y la Cooperación.

**Diru-laguntza:** 2.000,00 €

**Azalpena:** Guatemalako pandillen bortxakeriaren fenomenoari eta gure inguruko latino-amerikar banden ugalketari buruzko hitzaldia.

---

**Kodea:** 06-SSB-04

**Proiektua:** Garapenerako Lankidetzari buruzko I. jardunaldiak: irratia, kultura eta giza garapena.

**GGKE:** LERA: Antropólogos Sin Fronteras/Mugarik Gabeko Antropologoak.

**Diru-laguntza:** 2.000,00 €

**Azalpena:** Nagusiki Gizarte Laneko eta Gizarte Hezkuntzako ikasleei zuzendutako jardunaldiak, indigenen irratiek aldakuntza sozialerako eta garapenerako hezkuntzarako bitarteko gisa duten garrantziaz ohartarazteko.

---

**Kodea:** 06-SSB-05

**Proiektua:** Zabalkunde kanpaina: eskulan erakusketa eta salmenta.

**GGKE:** Kupu-Kupu, Niños de Bali.

**Diru-laguntza:** 2.000,00 €

**Azalpena:** Erakunde hori Indonesian bideratzen ari den proiektuen onuradun diren gazte ezinduek egindako eskularen erakusketa eta salmenta.

---

**Kodea:** 06-SSB-06

**Proiektua:** 5 € kanpaina

**GGKE:** Compartir, Asociación Acción Comunitaria

**Diru-laguntza:** 2.000,00 €

**Azalpena:** Ikus-entzunezko azalpenak eta, ondoren, solasaldi-eztabaidak, Gasteizko hainbat ikastetxetan, Errumaniako egoeraren berri emateko.

---

**Kodea:** 06-SSB-07

**Proiektua:** Afganistan: talibanik gabe ere, emakumeen kontrako indarkeriak bertan dirau

**GGKE:** María de Maeztu forum feminista

**Diru-laguntza:** 2.000,00 €

**Azalpena:** Afganistango legebiltzarreko diputatu Shinkai Karokhailek emandako hitzaldia, talibanen erregimena desagertu zenetik bost urtera bertako emakumeek bizi duten egoerari buruzkoa, eta eztabaida.

### 3.2. Lankidetzaren hitzarmenak

#### 3.2.1. SETEM-HEGO HAIZEAREKIKO hitzarmena, Gasteizko Udalaren esparruan bidezko merkataritza sustatzeko

Bere jardueraren esparruan bidezko merkataritza sustatzeko erabakia hartua duelarik Gasteizko Udalak, bidezko merkataritzako kafea erabil zezatela eskatu zien edari beroak saltzeko makinak jartzen dituzten enpresei *"gizarte etxe eta kirol instalazioetan edari hotzak, beroak eta bestelako produktuak saltzeko makinak jarri eta ustiatzeko lizentziak emateko"* egindako azken lehiaketa publikoan. Hartara, kafea nongoa den adierazteaz gain, argi eta garbi iragarri beharra daukate "Bidezko Merkataritza"koa dela.

Lehiaketaren baldintza teknikoaren agirian adierazten zen ezen, kafearen benetakotasuna bermatzeko, aldiaren kontrolak egiten utzi beharko zuela esleipena jasotzen zuen enpresak. Hitzarmen bat egin zuen Gasteizko Udalak Setem-Hego Haizearekin 2003. urtean, eta bertan zehaztu zen nola egingo ziren kontrol horiek, eta, bidenabar, bidezko merkataritza sustatu eta ezartzera bideratutako beste hainbat jardura adostu ziren. Berritu egin zen hitzarmena 2004. urtean, eta urtez urte modu automatikoan luzatuko zela zehaztu; horren ondorioz, indarrean egon da 2005ean ere.

#### 3.2.2. EAEko GGKEen Koordinakundearen (Arabako ordezkariak), Gasteizko Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena

Badira zenbait urte Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak EAEko GGKEen Koordinakundearen Arabako ordezkariarekin elkarlanean dihardutela, beren Garapenean Laguntzeko Zerbitzuen bitartez.

Elkarlan horrekin jarraitzeko premia ikusten zuten alde guztiek, eta hiruko hitzarmen berri bat izenpetu zuten. GGKEen koordinakundearen (Arabako ordezkariak) funtzionamenduan lagundu eta sendotzea beste helbururik ez du hitzarmen horrek, eta garapenerako hezkuntzako programak horretarako sortutako deialdietara aurkeztu ahal izango ditu hark, nahi izanez gero.

Garatu beharreko ekintza zehatz hauek finkatu ziren 2006ko hitzarmenaren baitan:

- GGKEek ordezkariaren parte hartzea sustatzea: partehartzearen diagnostika egin eta partehartze-bideei buruzko agiri bat taxutzea.
- GGKEei laguntzea, beren barne prozesu eta premietan.
- Koordinakundearen kanpainak bideratzea: zehazki "Zero Pobrezia" kanpaina, jardura guztien zeharkako ardatz gisa, baita beste kanpaina batzuetan laguntzea ere.
- GGKEak Gasteizen eta probintzian presente egon daitezen laguntza ematea.
- Koordinakunde GGKEei zuzendutako barne informazioa kudeatzea: jardueren buletinaren zerbitzua berritzea, barne buletin bat egin eta zabaltzea, erakunde-irudi berria diseinatzea.
- Sentiberatze jarduerak burutzea: hitzaldiak eta jardunaldiak.
- Erakundeak eta gizarte mugimenduei zuzendutako sentiberatze jarduerak: Garapenerako Kontseiluan eta lankidetzari buruzko udal nahiz probintzi politikan parte hartzea.
- Bulego teknikoaren zerbitzuak eta mantentze lanak.

Gasteizko Udalaren ekarpen ekonomikoa, hitzarmenaren baitan, 27.500 eurokoa izan zen, eta Arabako Foru Aldundiarena ere, berdin, 27.500 eurokoa.

### 3.2.3. Bakeaz koadernoen bilduman azterlanak argitaratzeko hitzarmenak

Badira zenbait urte BAKEAZ bakeari buruzko dokumentazio eta ikerkuntzarako zentroak Garapenean Laguntzeko Zerbitzuarekin lankidetzan diharduela; hain zuzen ere, garapenerako lankidetzaren inguruko hainbat lan argitaratzen ditu, Bakeaz koadernoak izeneko bildumaren baitan.

Lankidetzaren interesgarritasuna eta jarraipena ikusirik, baita argitaratutako materialen kalitatea eta hartzaileren artean duten harrera ona ere, uste izan zen aukerarik egokiena lankidetzaren hitzarmen orokor bat gauzatzea zela. Horrela, bada, urte osorako hitzarmen bat izenpetu zen 2006ko martxoan, argitalpen hauek egin, argitaratu eta banatzeko:

- Bakeaz koadernoak, 73. zk.: *“El mundo árabe: entre la tradición y la modernidad”*, Ignacio Álvarez-Ossorio Alvariño.
- Bakeaz koadernoak, 75. zk.: *“Guinea Ecuatorial: crecimiento sin desarrollo”*, Iñaki Gorozpe.
- Bakeaz koadernoak, 76. zk.: *“El dilema de los microcréditos en las políticas de desarrollo”*, Carlos Gómez Gil.

Udalaren ekarpen ekonomikoa, hitzarmenaren baitan, 14.700 €-koa izan zen.

Gerora, hiru koaderno horiez gain, eta kontuan izanik Saharako Herriekiko Elkartasuna Koordinatzeko Europako XXXII. Konferentzia (EUCOCO) Gasteizen izatekoa zela, oso interesgarritzat jo zen Saharako kanpamenduek Tindufeko (Aljeria) basamortuan daramaten hogeita hamar urtetik gorako denbora horretan guztian izandako bilakaerari buruzko argitalpen bat izatea. Horrenbestez, beste hitzarmen bat egin zen argitalpen berri bat taxutu, argitaratu eta banatzeko:

- Bakeaz koadernoak, 77. zk.: *“La prisión del tiempo: los cambios sociales en los campos de refugiados saharauis”*, Sophie Caratini.

Udalaren ekarpen ekonomikoa, hitzarmen horren baitan, 6.365 €-koa izan zen. Guztira, 21.065 € bideratu ziren bi hitzarmen horietara.

### 3.2.4. “Oporrak bakean” programarako hitzarmena

Duela zenbait urtetik hona, bai Gasteizko Udalak, bai Arabako Foru Aldundiak laguntza ematen dute “Oporrak bakean” programa bideratzen laguntzeko. Horren bitartez, Saharako haurrek –Tindufeko (Aljeria) iheslarietako kanpamentuetakoek– uda Gasteizen eta Arabako beste herri batzuetan, bertako familiekin pasatzeko aukera izaten dute.

Aipatzeko da, berrikuntza gisa, haurrak hartzen dituzten familiak biltzen dituen AFANIS elkarteak kudeatu duela oraingoan programa. 45 haur hartu ziren 2006. urtean, hitzarmenaren baitan.

Gasteizko Udalaren ekarpen ekonomikoa, hitzarmenaren baitan, 16.500 eurokoa izan zen, eta Arabako Foru Aldundiarena, berriz, 10.000 eurokoa.

### 3.2.5. SETEM Hego Haizea eta Arabako Foru Aldundiarekiko hitzarmena, garapenean laguntzeko boluntarioak prestatzeko programa garatzeko. 2006/2007 ikasturtea

SETEM Hego Haizea GGKEak garapenean laguntzeko boluntarioak prestatzeko bideratzen duen programaren baitan ikastaro teoriko-praktikoak antolatzen dira, zeinetan batez ere gazteek parte hartzen baitute eta garatze bidean dauden herrialdeetako errealitatearekin eta horrek gure gizartearekin dituen erlazioekin zerikusia duten hainbat gairen inguruko prestakuntza jasotzen baitute. Gainera, GGKE horren lankidetzaren proiektuetako

ren batean parte hartzeko aukera dute gazte horietako zenbaitek. Gasteizen modu jarraituan garatzen den era horretako programa bakarra da, eta ongi betetzen ditu bertan parte hartzen duten pertsonak prestatu, sentiberatu eta boluntario gisa lan egiteko aukera emateko helburua.

Horregatik, duela zenbait urtetik hona, bai Gasteizko Udalak, bai Arabako Foru Aldundiak laguntza ematen diote, ekarpen ekonomikoen bitartez.

2006. urtean jarduera zehatz hauek finkatu ziren, hitzarmenaren baitan garatzeko:

- a) "Hegoaldeko herrien errealitatea" ikastaroa.
- b) Elkartasunerako auzolandegiak:
  - Koordinatzaileen ikastaroa.
  - Auzolandegiak aurkezteko asteburua.
  - "Hurbil zaitez hegoaldera" monografikoa.
  - Herrialdez herrialdeko prestakuntza bilerak.
  - "Eta orain zer?" monografikoa.
- c) Monografikoak eta erakusketak. Kontsumo arduratsuaren esparruan: bidezko merkataritza, kafe onaren kanpaina, arropa garbiaren kanpaina edo finantza etikoak.
- d) Elkartasunerako auzolandegi bati buruzko ikus-entzunezkoa.
- e) Monografikoak eta erakusketak, Araban.

Gasteizko Udalaren ekarpen ekonomikoa, hitzarmenaren baitan, 20.000 eurokoa izan zen, eta Arabako Foru Aldundiarena, berriz, 17.872 eurokoa.

### Sentiberatze deialdi eta hitzarmenen baitako diru-laguntzak

Sentiberatze jardueretarako eta garapenerako hezkuntzarako diru-laguntzen azpiprogramak biltzen dira ondoren:

<u>Azpiprograma</u>	<u>Diru-kopurua</u>
GHrako hainbat urterako deialdia . . . . .	76.600,00 €
Urteko sentiberatze deialdia . . . . .	24.500,00 €
Bidezko merkataritzako kafe makinak . . . . .	- €
GGKEen koordinakundea - Arabako ordezkaritza . . . . .	27.500,00 €
Bakeaz koadernoak . . . . .	21.065,00 €
"Oporrak bakean" programa . . . . .	16.500,00 €
SETEMen prestakuntza programa . . . . .	20.000,00 €
Guztira . . . . .	117.225,00 €

### 3.3. Informazioa, zabalkundea eta prestakuntza.

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak diru-laguntza deialdi eta hitzarmenetatik kanpo gauzatzen dituen hainbat jarduera biltzen dira informazio eta zabalkunde alorrean; batetik, lankidetzari buruzko informazioa eman edo argitaratutako materialak zabaltzeko asmoz udalak berak zuzenean antolatzen dituenak; bestetik, berriz, diru-laguntzarik eman gabe ere beste erakunde batzuek bultzatutako ekimen edo kanpainiei laguntza puntuala emateko direnak.

Halaber, nolabait ere, sail honetan sar daitezke Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak GGKEei bitartekoak eskura jartzeko eta laguntzeko egindako kudeatze lanak:

- Urte osorako aurreikusitako jardueri buruzko informazioa bildu eta GGKEei bidaltzea, urteko agenda antolatzeko.
- Hitzaldiak, ekitaldi publikoak, jardunaldiak eta abar egiteko aretoak eta bestelako materialak uztea.
- GGKEek antolatutako biltzar, jardunaldi eta besteren edukiak, egitura eta alderdi logistikoak zehazten laguntzea.

#### 3.3.1. "Elkartasun uhina" erakusketa

2004ko abenduan, Asia Hego-Ekialdean izandako tsunamiaren ondoren, hondamendiari aurre egiteko aparteko larrialdi funts bat sortu zuten Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiak eta Vital Kutxak. Partikularren ekarpenak ere jaso ziren funts horretan, bildutakoaren % 60, hain zuzen ere. Hartara, 464.000 euro eman ahal izan zitzaizkien zazpi GGKEri larrialdietan laguntzeko eta eraberritze lanak egiteko hainbat proiektu bideratzeko.

Urte bat geroago, 2006ko otsailaren 3tik 26ra bitartean, "Elkartasun uhina" erakusketan egin zen Amerika aretoan, bi helbururekin: esker on mezua helaraztea herritarrei, egindako ekarpenengatik, eta gauzatutako proiektuak eta horien emaitzak ezagutzera ematea.

Proiektu desberdinei buruzko informazio panelak biltzen zituen erakusketak, fitxa teknikoekin, baita erakundeek utzitako argazkiak ere. Gainera, laguntza zein izan zen erakusten zuten benetako objektuak eta bestelako elementu grafikoak erakutsi ziren.

Gasteizko Udalaren ekarpen ekonomikoa, jarduera horretarako, 1.452,00 eurokoa izan zen.





### 3.3.2. "Lankidetzaren irudietan" II. argazki lehiaketa

Bi urtean behin egiten den "Lankidetzaren irudietan" argazki lehiaketaren hirugarren edizioa antolatzen, garatze bidean dauden herrialdeetako lankidetzaren inguruan.

Berrikuntza gisa, 2004az geroztik Gasteizko Udalaren diru-laguntza jasoa zuten garapenean laguntzeko proiektuetako argazkiak ez ezik, Arabako Foru Aldundiarena jasoa zutenekoak ere aurkez zitezkeen lehiaketara.

Guztira 42 argazki aurkeztu ziren. Arabako Argazkilarien Elkarteko bi kidek, GGKEen Koordinakundearen ordezkari batek eta Garapenean Laguntzeko Zerbitzuko teknikari batek (ahotsa bai, baina botorik ez) osatu zuten epaimahaia, zeinek hiru sari, bi akzesit eta Hegoa sari berezia eman baitzituen:

1. SARIA, 600 € eta diploma: Oskar Hernando Cabrerizo, "Vacunación en la Comunidad 8 de Agosto" argazki sortagatik. Proiektua: "Zapatisten osasun-sistema autonomoa indartzea, Chiapasen" (Mexiko). GGKE: Bakea eta Elkartasuna fundazioa.

2. SARIA, 450 € eta diploma: Jennifer Martínez Cerezo, "Trabajando por un futuro mejor" argazki sortagatik. Proiektua: "Haur eta gazte ezinduentzako heziketa, sozializazio eta artisau-lanak ekoizteko programak, Bali" Indonesia. GGKE: Kupu Kupu- Bali.

3. SARIA, 300 € eta diploma: Edurne Rey Delgado, "Y pusimos a las mujeres a soñar" argazki sortagatik. "Malpaisilloko emakumeek boterea erabat eskuratzea eta ekonomia aldetik indartzea" eta "Larreygana udaleko landa eremuko biztanleen osasuna hobetzea, genero ikuspegitik" proiektuak. Nikaragua. GGKE: Mugarik Gabe.

AKZESITA, 120 € eta diploma: Jesús María Ortiz Arberas, "El reflejo de los niños" argazki sortagatik. "Hainbat urterako proiektua Curarrehue-ko komunan" eta "Kooperatiba ekimenak garatzea Curarrehue-ko komunan" proiektuak (Txile). GGKE: Setem Hego Haizea.

AKZESITA, 120 € eta diploma: Natividad López de Munain Alzota, "Mujeres rurales de Malpaisillo: Ayer un sueño, hoy una realidad". "Malpaisilloko emakumeek boterea erabat eskuratzea eta ekonomia alorra indartzea" proiektua. Nikaragua. GGKE: Mugarik Gabe.

HEGOA SARIA, 450 € eta diploma: "Expresiones" argazki lantegian parte hartu zuten Curarrehue-ko nerabe taldea, "Expresiones" argazki sortagatik. "Hainbat urterako proiektua Curarrehue-ko komunan" eta "Kooperatiba ekimenak garatzea Curarrehue-ko komunan" proiektuak (Txile). GGKE: Setem Hego Haizea.

Lehiaketa honetako argazkiekin erakusketa sorta bat egingo da datorren urtean, bisita gidatuekin, bai Gasteizen, bai Arabako hainbat herritan.

Jarduera horrek sortutako kostua 2.040,00 € -koa izan zen.

### 3.3.3. Argazki erakusketa bat aukeratzea

Lehenengo aldiz bideratu da ekimen hau aurten. Interesaturik zeudekeen pertsona eta erakunde guztiei egin zitzaizkien gonbita garapenerako lankidetzari buruzko argazki erakusketak aurkezteko, argazki kopuruari, edukiei, modalitateei, teknikari nahiz estiloei buruzko inolako mugarik gabe, guztien artean bat aukeratu eta Gasteizen ikusgai jartzeko asmoz.

Argazkien kalitatea eta jorrazten zituzten gaiak aintzat hartzeaz gain, erakusketak ukitzen zituen gaiekin zerkusia zuten ekintza paraleloak aurkeztea ere balioestekoa zen, aukera egiterakoan.

Urriaren 1.etik abenduaren 15era arte egon zen zabalik aurkezteko epea, eta Arabako Argazkilarien Elkarteko bi kidek, ekintza soziokulturaletarako udal teknikari batek eta



Garapenean Laguntzeko Zerbitzuko beste batek (ahotsa bai, baina botorik ez) osatu zuten epaimahaia.

Aukeratutako erakusketak “Inongo emakumerik ez da jaiotzen puta izateko” du izenburua, eta Bolivia emakume feministen Mujeres Creando taldeak aurkeztu zuen. Hiri erdiko areto batean erakutsiko da, 2007an.

### 3.3.4 GGKEetako lan-baldintzei buruzko azterketa

GGKEtan ikusten den fenomeno bat bertako langileak maiz aldatzen direla, batzuk joan bestek egorri. Bestalde, azkenaldi honetan hainbat kasutan gertatu da langile liberatuek tratamendu medikoa hartu behar izatea, antsietatea edo bestelako nahasmen psikosomatikoak zirela medio, eta hainbatek lana utzi dutela, estresagatik.

Arazo horri aurre egiteko, Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Zuzendaritzak diagnosi-azterketa bat egitea erabaki zuten, baita EAEko GGKEetako lan egoerei buruzko jardunaldiak ere.

Ekimen horren bitartez langileengan estresa sortzen duten eta horiek erakundeak uztea dakarten faktoreak identifikatu nahi dira, eta hobekuntza bide eta tresnak proposatu.

Aditu talde batek prestatutako inkestak egingo dira 2007an. Gerora aditu bakoitzak azterketa/ikerketa bat egingo du, inkestak banatuta dauden alderdietako bakoitzaren inguruan eta, azkenik, urteko azken hiruhilekoan, jardunaldiak antolatuko dira.

### 3.3.5. “Eztabaidaren begian” programa

Data	Hitzaldiaren izenburua	Antolatzaileak
12/01/2006	“El comercio mundial te afecta”	Munduko Nekazaritza Funtsa
02/03/2006	“Agua saludable y consumo responsable”	Medicus Mundi
06/04/2006	“Desatención y maltrato infantil y juvenil”	Compartir, Kupu Kupu eta Avaim
03/05/2006	“África tan cerca y tan lejana”	Afrika Beltzarekiko Elkartasun Batzordea
05/10/2006	“Deuda externa, gasto militar y comercio justo”	GGKEen koordinakundea eta ILP plataforma
09/11/2006	“SIDA aquí y en el Tercer Mundo”	HIESaren aurkako Herritarren Batzordea eta Mugarik Gabeko Medikoak



2006. urtean Luis de Ajuria aretoan izandako hitzaldietatik, garapenerako lankidetzarekin zerikusia dutenak bakarrik aipatuko ditugu:

### 3.3.6. Udal Kazetan artikulua argitaratzea

	Kazetaren zk.	Or.
• “Una ola de solidaridad”. Asia Hego-Ekialdean izandako tsunamiaren ondoren Larrialdietarako Arabako Funtzaren eta partikularren ekarpenei esker gauzaturako proiektuei buruzko erakusketa. ....	57	4
• “Despedida del alcalde de Nejapa”. René Canjurak egindako bisitari eta El Salvadorreko udal horrekiko hitzarmenaren amaierari buruzko informazioa. ....	57	13
• “Juana Ruiz Sánchez”. Palestinan, Manos Unidas erakundeak parte hartzen duen proiektu batean lan egiten duen boluntario horri egindako elkarrizketa. ....	57	14
• “Saharako errefuxiatuen kanpamenduetarako larrialdietarako laguntzak”. Uholdeen ondoren errefuxiatu kanpamenduei emandako larrialdiko laguntzari buruzko informazioa. ....	58	13
• “El derecho a jugar”. Arabako Gurutze Gorriak eta udalak antolatutako hamaikagarren kanpainan bildutako jostailuak Dominikar Errepublikara bidaltzearen ingurukoak. ....	58	13
• “Agua potable para 25 comunidades rurales de Perú”. Medicus Mundirekin batera, eta udalaren diru-laguntzarekin, hainbat urteko proiektu bat gauzaten ari den Peruko Servicios Educativos Rurales (SER) erakundearen ordezkarien bisitaldia. ....	58	20
• “Agua solidaria”. Mundu osoan uraren inguruan dauden arazoei buruzko “La revolución azul” argazki erakusketa bati buruzko informazioa. ....	58	25
• “La lucha pacífica de Aminetu Haidar”. Juan M <sup>o</sup> Bandrés V. Saria jaso duen ekintzaile saharar horren bisitaldiari buruzko informazioa. ....	60	13
• “Por un verano de verdad”. “Oporrak bakean” programari buruzko informazioa: 45 haur sahararrek bi hilabete igaroko dituzte Gasteizko familietan. ....	61	29
• “Conferencia saharai en Vitoria”. Saharako Herriekiko Elkartasuna Koordinatzeko Europako XXXII. Konferentziari (EUCOCO) buruzko iragarkia. ....	64	11
• “Alcaldes de El Salvador”. Nejapa, San Francisco Menéndez eta Santa Anako alkateen bisitaldiari buruzko informazioa. ....	64	13
• “EUCOCO 2006: Un hito de solidaridad con el Sáhara”. Azaroaren 3tik 5era bitartean izandako konferentziari buruzko informazioa. ....	65	11
• Monografikoa: “El drama del SIDA”. Hirugarren Munduko epidemiari, UNICEF eta ONUSIDaren sentiberatze kanpainari, udalak Mugarik Gabeko Medikuek erakundearen Guatemalako proiektu bati emandako laguntzari eta POSITHIV + argazki erakusketari buruzko artikulua. ....	65	-
• “Consumo Responsable”. Mugarik Gabe erakundeak kontsumo arduratsua, energia aurrezpena eta bidezko merkataritza sustatzeko antolatutako kanpainaren iragarkia. ....	66	4

Garapenerako lankidetzaren alorreko jarduerekin zerikusia duten artikulua hauek argitaratu ziren Udal Kazetan 2006an:

### 3.3.7. Lankidetzari buruzko web-orria

2006. urtean eguneratu eta zabaldu egin da lankidetzari buruzko udal web-orria ([www.vitoria-gasteiz.org/cooperacion](http://www.vitoria-gasteiz.org/cooperacion)); atal berriak sartu dira, eta edukiak berriro, bai direktoria, bai jardueren agenda, estekak eta dokumentu interesgarriak, diru-laguntza deial-

diak... Garapenerako Kontseiluaren atalean organo horri dagokion dokumentazio guztia eskaintzen da.

### 3.3.8. Materialen zabalkundea

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren 2005eko oroit-idazkia argitaratu eta banatu zen 2006an.

Orobat finantzatu zen, ohi denez, udal liburutegietan Federación de Comités de Solidaridad con el África Negra erakundearen hiruhileko UMOYA aldizkaria jasotzeko harpidetza.

### 3.3.9. Jostailuak biltzeko kanpaina.

Iaz ere lagundu zuen Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak Gazteria Zerbitzuak eta Gurutze Gorriak kudeatu ohi duten kanpaina horretan. Perura bidaliko dira 2006ko kanpainen bildutako jostailuak. ADIPE GGKEaren laguntza izango da horretarako.

Berrikuntza gisa, sentiberatzearen eta garapenerako hezkuntzaren helburuak azpimarratze aldera, erakusketa didaktiko bat antolatu zen kultur aretoan: "Afrika: jolasteko beste modu bat", Eguberrietako oporraldian.

Angolako haurrek egindako jatorrizko 25 jostailu biltzen zituen erakusketak. Ikus eta uki zitezkeen jostailuak ziren, sormenaren erakusgarri, material birziklatuekin eginak, hemen modu industrialean ekoizten diren jostailuekin aldera zitezkeenak. Bi gizarteen arteko aldeak eta parekotasunak islatzen zituzten, eta alde horien zergatiaz norberaren buruari galde egitera bultzatzen. Jostailu bakoitzaren ondoan asmatu zuen haurraren argazkia ageri zen, eta hemengo antzeko jostailu baten fitxa (ezaugarri teknikoak, prezioak eta kalitateak).

Bisita gidatuak egin ziren erakusketara, eta,aldi berean, jostailuak birziklatu eta egiteko lantegiak. Halaber, tolerantzia eta kulturen arteko begirunea sustatzen dituzten ipuinak eta haur literaturaren alorreko liburuak ikusgai jarri ziren.

Laguntzaren kostua, guztira, 4.419,57 €-koa izan zen.

### Informazio eta zabalkunde atalaren aurrekontua

<u>SSentiberatzea eta prestakuntza</u>	<u>Diru-kopurua</u>
"Elkartasun uhina" erakusketa .....	1.452,00 €
"Lankidetzaren irudietan" lehiaketa .....	2.040,00 €
Zerbitzuaren oroit-idazkia (maketazioa eta inprenta) .....	3.707,35 €
2006 Eguberrietako jostailu kanpaina (kartela eta erakusketara bisita gidatuak egitea) .....	4.419,57 €
Beste .....	636,00 €
Guztira .....	12.254,92 €

# 4

## Jarraipena eta ebaluazioa



## 4. Jarraipena eta ebaluazioa

2006. urtean Garapenean Laguntzeko Zerbitzua ez da izan inongo proiekturik bertatik bertara ikusten. Ondoren adierazten diren jarraipen, ebaluazio eta identifikazio ekintzak egin dira, edo kontratatu.

### 4.1. Proiektuei buruzko txostenen jarraipena

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak egiten du deialdien nahiz hitzarmenen haritik bideratzen diren lankidetzak proiektuei buruzko txostenen jarraipena, baita sentiberatzearen eta giza-laguntzaren nahiz larrialdien alorrekoen buruzko txostenena ere.

Sei hilean behin aurkeztu behar izaten dituzte txostenak GGKEek (zenbaitetan urtekoak), guztientzat berberak diren arauetara jarraiki, eta jarraipen-sistema horrek proiektuak zenbateraino bete diren, zer-nolako eragina izan duten eta diru-laguntzak zertarako baliatu diren jakiteko aukera eskaintzen du.

Proiektuak kudeatzeko datu-biltegian sartzen dira txostenetan eskaintako datuak. Hartara, egindako jarraipenaren eta proiektuen justifikazioen ikuspegi zabala izan daiteke uneoro.

Jarraipen sistema arina dela irudi balezake ere, dezenteko lan-karga geratzen da, proiektuen kopurua kontuan izanik. Hori dela eta, erabakigarria izan da zerbitzuak hirugarren teknikari bat hartu izana jarraipena hobetzeko orduan, bai denborari, bai kalitateari dagokionez.

### 4.2. Saharako programa ebaluatzeko kontratazioa

Saharako programa (2002-2006 aldian) bertatik bertara ebaluatzeko kontratazio-prozesua abian jarri zuen Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak 2006. urtearen bukaera aldera, eta Internacional de Gestión y Cooperación (ICG) erakundeari esleitu. 2007ko lehen hiruhilekoan egingo da ebaluazioa.

### 4.3. Nikaraguako hainbat urterako bi proiektuen ebaluazioaren emaitzak

2000ko deialdiko Nikaraguako hainbat urterako bi proiektuen ebaluazioa esleitu zitzaion 2005ean Hábitat y Cooperación erakundeari:

---

**Proiektua:** Udallerriaren eta komunitatearen garapen prozesuan laguntzea, genero ikuspegiarekin

**Herrialdea:** Nikaragua

**Udallerria, Departamentua:** Malpaisillo, León

**Gasteizko GGKE / Bertako GKE:** Mugarik Gabe/Xochilt Acalt zentroa

**Diru-laguntza, guztira:** 452.429,95 € (4 urte)

---

**Proiektua:** "Etorkizuna hobetuz", gizon-emakumeen berdintasunaren alorreko programa, Waslalan

**Herrialdea:** Nikaragua

**Udallerria, Departamentua:** Waslala

**Gasteizko GGKE / Bertako GKE:** Medicus Mundi Álava/ APROMUWAS, COSAWAS eta Venancia taldea

**Diru-laguntza, guztira:** 186.962,11 € (3 urte)

---

2006ko lehen hiruhilekoan egin ziren ebaluazio horiek, eta oso balioespen ona izan zuten proiektuek.

**Udallerriaren eta komunitatearen garapen prozesuan laguntzea, genero ikuspegiarekin**

Hauxe da gure balioespena: uste dugu aukera handiak daudela proiektuak eragin ezabaezinak izateko, bereziki emakume askoren bizitzan. Neurtzen zailak izan arren, apartekoak izan dira emaitzak, eta ongi merezia dute egindako diru-ekarpena; luzarora izango dute eragina, baita hurrengo belaunaldietakoen bizitzan ere.

**"Etorkizuna hobetuz", gizon-emakumeen berdintasunaren alorreko programa, Waslalan**

Hainbat irizpide aztertu dira. Erdi-mailako (% 73,21) balioespena izan du proiektuak. Hala ere, helburuak eta proposatutako emaitzak lortzeari dagokionez oso ona (% 84,50) izan da balioespena. Lehenengo helburua –APROMUWA taldeak eta Venancia taldea sendotzea– % 82,75arekin balioetsi da, eta bigarren helburua –komunitate horietako emakumeen bizitza-baldintzak hobetzea– % 86,25arekin.

#### **4.4. SETEMen prestakuntza programa ebaluatzeako kontratazioa**

SETEMen prestakuntza programa (2002-2006 aldian) ebaluatzeako kontratazio-prozesua abian jarri zuen Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak 2006. urtearen bukaera aldera, eta ZERO TAILER SOZIOLOGIKOARI esleitu. 2007ko lehen hiruhilekoan egingo da ebaluazioa.

#### **Ebaluazioa egiteko baliatutako aurrekontua**

---

<b>Ebaluazioa</b>	<b>Kontratututako erakundea</b>	<b>Diru-kopurua</b>
Saharako programaren ebaluazioa (2002-2006)	ICG	11.000,00 €
SETEMen prestakuntza programaren ebaluazioa	Zero Tailer Soziologikoa	4.872,00 €
Guztira		15.872,00 €



# **5**

## **Truke eta bisitaldiak**



## 5. Truke eta bisitaldiak

Lankidetzaren helburuak betetzen laguntzeaz gain, elkar ezagutzeko eta sentiberatzea bideratzeko balio izan ohi dute trukeak. Hainbat herrialdeetako pertsonak bisitatu zuten iaz ere Garapenean Laguntzeko Zerbitzua.

### 5.1. Kogoko zentro soziokulturala

Asociación Africanista Manuel Iradier elkartearen ekimenez, Kogoko (Ekuatore Ginea) zentro soziokulturaleko arduradun Catalina N'fumo andrea gonbidatu zen Gasteiza. Irailaren 25etik abenduaren 15era bitartean izan zen hemen, eta prestakuntza eta truke programa bat egin zuen denbora horretan, hasiera batean hiriko gizarte etxeetan zentratua eta, gerora, berriz, udal zerbitzuetan (Gazteria, Berdintasuna, Parte-hartzea eta abar). Orobat izan zituen harremanak ekimen ekonomiko txikietan laguntzen duten elkarte eta erakundeekin, eta interneti buruzko prestakuntza ikastaro bat egin zuen.

### 5.2. Oum El Banine eta Ard Al Atfal elkarteak

Azaroaren 6tik 10era, Aïcha Malloulek (Ard Al Atfal elkarte zuzendaria) eta Mahjoub Edbouchek (Oum el Banine elkarteko gizarte ataleko burua) –alegia, Tierra de Hombres erakundearen “Haurrak baztertera uztea prebenitzea eta bakarrik dauden amei laguntzea Agadirren” proiektuko bertako erakundeetakoak– truke-bisitaldia egin zuten udaleko gizarte zerbitzuetara (bereziki haurtzaroren eta inmigrazioaren alorrekoetara), eta emakume magrebiarrekin bildu ziren. Truke programa egituratu baten ildo nagusiak taxutu ziren, bereziki elkarte horiek Marokon bazterketa-egoeran dauden emakume eta hurrekin izandako esperientzia eta erabilitako metodologiak gure hiriko emakume eta haur magrebiarrekin harremanak dituzten zerbitzuentzat baliagarri izan daitezten.

### 5.3. Bisitaldiak

Ohi denez, GGKEen proiektuetan tokian-tokian diharduten erakundeen ordezkariak bisitatu zituen Garapenean Laguntzeko Zerbitzua, baita lankidetzaren nahiz giza eskubideen alorreko hainbat programarekin zerikusia duten hainbat herrialdeetako udal ordezkari edo pertsona ere. Nabarmenezkoak dira honako hauek:

- hainbat urterako proiektuetan ardurak dituzten pertsonak: alde batetik: Roger Agüero (SER) eta Teodosio Escobar, Perukoak, Arabako Medicus Mundiren proiektukoak, eta bestetik: Marcela López, Rimer Agreda, Germán Busch kantoiko alkatea, eta René Díez (CEDESCO), Bakea eta Elkartasunaren proiektukoak,
- El Salvadorreko Nejapa, Santa Ana eta San Francisco Menéndezeko alkateak, Gasteizko Udalak gonbidaturik,
- Paitako probintziako alkateak: Francisco García Curay eta Antonio Álvarez Azcarate,
- giza eskubideekin zerikusia duten bisitak: Haminetu Haidar (Mendebaldeko Sahara okupatua), Ciudad Juárez (Mexico) erauldako gazte eta nesken amak, Kolonbiako eta Guatemalako hainbat pertsona, eta Beltzez jantzitako Emakumeak taldearen ordezkariak.

---

**Data:** 21-02-06  
**Izena:** René Rivera  
**Kargua:** Lurraldearen Ekonomi Garapenerako zuzendaria  
**Erakundea:** FUNDE  
**Herrialdea:** El Salvador

---

**Data:** 10-03-06  
**Izena:** Roger Agüero Pittman  
**Kargua:** Lehendakariordea  
**Erakundea:** Servicios Educativos Rurales SER  
**Herrialdea:** Peru

---

**Data:** 10-03-06  
**Izena:** Teodosio Escobar  
**Kargua:** Saneamendu Zerbitzuen Administrazio Batzarreko lehendakaria  
**Erakundea:** Comunidad de Chaupiyacu (Anco, Huancavelica)  
**Herrialdea:** Peru

---

**Data:** 21-03-06  
**Izena:** Anita Menchú (Maya-Quiché)  
**Kargua:** Agenda Indígena Internacional-eko koordinatzaile nagusia  
**Erakundea:** Fundación Rigoberta Menchú Tum  
**Herrialdea:** Guatemala

---

**Data:** 21-03-06  
**Izena:** Feliciano Mendoza (Maya-Mam)  
**Kargua:** Bazkide sortzailea / kidea  
**Erakundea:** Asociación Política de las Mujeres Mayas / Iniciativa Indígena por la Paz  
**Herrialdea:** Guatemala

---

**Data:** 21-03-06  
**Izena:** Felicitas Martínez (Tlapaneca)  
**Kargua:** Koordinatzailea  
**Erakundea:** Coordinadora Nacional de Mujeres Indígenas en México DF  
**Herrialdea:** Mexiko

---

**Data:** 21-03-06  
**Izena:** Martha Sánchez (Amuzga)  
**Kargua:** Koordinatzaile nagusia / koordinatzaile nagusia  
**Erakundea:** Consejo de la Nación Amuzga / Asamblea nacional Indígena Plural por la Autonomía (ANIPA)  
**Herrialdea:** Mexiko

---

**Data:** 29-03-06

**Izena:** Humberto Solas

**Kargua:** Zinemagilea

**Erakunde:** Kubako Festival Internacional de Cine Pobre zinema jaialdiko lehendakaria

**Herraldea:** Kuba

---

**Data:** 29-03-06

**Izena:** Lily Suárez

**Kargua:** Zinemagilea

**Erakunde:** Centro Memorial Dr. Martin Luther King

**Herraldea:** Kuba

---

**Data:** 29-03-06

**Izena:** Lizette Vila

**Kargua:** Zinemagilea

**Erakunde:** Palomas proiektuaren zuzendari nagusia

**Herraldea:** Kuba

---

**Data:** 30-03-06

**Izena:** Natalia Escobar Pemberthy

**Kargua:** Nazioarteko lankidetzaren eta negozioen kudeatzaileordea

**Erakunde:** Antioquiako gobernazioa

**Herraldea:** Kolonia

---

**Data:** 09-05-06

**Izena:** José A. Sardiñas Alfonso

**Kargua:** Lehendakariordea

**Erakunde:** Asociación Cubana de Producción Animal ACPA

**Herraldea:** Kuba

---

**Data:** 10-05-06

**Izena:** Ana Isabel López de Guevara

**Kargua:** Zuzendaria

**Erakunde:** Movimiento Salvadoreño de Mujeres

**Herraldea:** El Salvador

---

**Data:** 10-05-06

**Izena:** Maribel

**Kargua:** Lehendakaria

**Erakunde:** Movimiento Salvadoreño de Mujeres

**Herraldea:** El Salvador

---

**Data:** 10-05-06  
**Izena:** Matilde  
**Erakundea:** Movimiento Salvadoreño de Mujeres  
**Herrialdea:** El Salvador

---

**Data:** 15-05-06  
**Izena:** Aminattou Haidar  
**Kargua:** Saharako ekintzailea eta atxilotu politikoa  
**Herrialdea:** Mendebaldeko Sahara

---

**Data:** 15-05-06  
**Izena:** Maima Mahamud  
**Kargua:** Dajlako Emakumeen Eskolako zuzendaria (Tindufeko errefuxiatu kanpamentuak)  
**Herrialdea:** Mendebaldeko Sahara

---

**Data:** 15-05-06  
**Izena:** Mohamed Lamin  
**Kargua:** Kazetaria  
**Herrialdea:** Mendebaldeko Sahara

---

**Data:** 24-05-06  
**Izena:** René Canjura  
**Kargua:** Alkatea  
**Erakundea:** Nejapako udala  
**Herrialdea:** El Salvador

---

**Data:** 12-09-06  
**Izena:** Domingo Tovar Arrieta  
**Kargua:** Zuzendaria  
**Erakundea:** Oficina de Derechos Humanos de la CUT (Kolonbia)  
**Herrialdea:** Kolonbia

---

**Data:** 19-09-06  
**Izena:** Carmen Valverde  
**Kargua:** Zuzendaria  
**Erakundea:** CENDIPP  
**Herrialdea:** Peru

---

**Data:** 19-09-06  
**Izena:** Lelia Frías  
**Erakundea:** CENDIPP  
**Herrialdea:** Peru

---

**Data:** 20-09-06  
**Izena:** Gladys Cáceres Leyva  
**Kargua:** Zuzendaria  
**Erakundea:** INPRHU-Somoto (Instituto de Promoción Humana Somoto)  
**Herrialdea:** Nikaragua

---

**Data:** 27-09-06  
**Izena:** René Canjura  
**Kargua:** Alkatea  
**Erakundea:** Nejapa  
**Herrialdea:** El Salvador

---

**Data:** 28-09-06  
**Izena:** José Narciso Ramírez  
**Kargua:** Alkatea  
**Erakundea:** San Francisco Menéndez  
**Herrialdea:** El Salvador

---

**Data:** 28-09-06  
**Izena:** José Orlando Sandoval  
**Kargua:** Alkatea  
**Erakundea:** Santa Ana  
**Herrialdea:** El Salvador

---

**Data:** 03-10-06  
**Izena:** Antonio Álvarez Azcarate  
**Kargua:** Aholkularia  
**Erakundea:** Paitako probintziako udala  
**Herrialdea:** Peru

---

**Data:** 03-10-06  
**Izena:** Carlos Alberto Funes  
**Kargua:** Alkatea  
**Erakundea:** Santa Elena  
**Herrialdea:** El Salvador

---

**Data:** 03-10-06  
**Izena:** Francisco García Curay  
**Kargua:** Ingurumen Arloko burua  
**Erakundea:** Paitako probintziako udala  
**Herrialdea:** Peru

---

**Data:** 04-10-06  
**Izena:** Marcela López  
**Kargua:** Betearazlea  
**Erakundea:** Federación de Mujeres de Centrales Unidas  
**Herrialdea:** Bolivia

---

**Data:** 04-10-06  
**Izena:** René Díez  
**Kargua:** Zuzendari betearazlea  
**Erakundea:** CEDESCO  
**Herrialdea:** Bolivia

---

**Data:** 04-10-06  
**Izena:** Rimer Agreda  
**Kargua:** Alkatea  
**Erakundea:** German Busch kantoia  
**Herrialdea:** Bolivia

---

**Data:** 16-10-06  
**Izena:** Emilio Espín  
**Kargua:** Harreman eta kudeaketa kudeatzailea  
**Erakundea:** CORDES Bajo Lempa  
**Herrialdea:** El Salvador

---

**Data:** 16-10-06  
**Izena:** Hugo Flores  
**Kargua:** Zuzendari betearazlea  
**Erakundea:** CORDES  
**Herrialdea:** El Salvador

---

**Data:** 16-10-06  
**Izena:** Lorena Araujo Martínez  
**Kargua:** Lehendakaria  
**Erakundea:** CRIPDES  
**Herrialdea:** El Salvador

---

**Data:** 25-10-06  
**Izena:** Debby Lerman  
**Erakundea:** Bat Shalom Mujeres de Negro Israel  
**Herrialdea:** Israel

---

**Data:** 25-10-06  
**Izena:** Stása Zajovic  
**Erakundea:** Mujeres de Negro Belgrado. Serbia.  
**Herrialdea:** Serbia

---

**Data:** 25-10-06  
**Izena:** Luljeta Vunijq  
**Erakundea:** Kosovoko Emakumeen Sarea  
**Herrialdea:** Kosovo

---



---

**Data:**

**Izena:** Medardo Quijano

**Kargua:** Alkatearen aholkularia

**Erakundea:** Santa Elena

**Herrialdea:** El Salvador

---

**Data:** 14-11-06

**Izena:** Ruth Marina Matamoros

**Erakundea:** Las Venancias

**Herrialdea:** Nikaragua

---

**Data:** 16-11-06

**Izena:** André Ata Ayoumani

**Kargua:** Lehendakaria

**Erakundea:** Akwaba Côte d'Ivoire

**Herrialdea:** Boli Kosta

---

**Data:** 16-11-06

**Izena:** Florence Coulibali

**Kargua:** Gizarte-langilea (Gonfreville)

**Erakundea:** Akwaba Côte d'Ivoire

**Herrialdea:** Boli Kosta

---

**Data:** 16-11-06

**Izena:** Raymond N'kema

**Kargua:** Farmazialaria

**Erakundea:** Akwaba Côte d'Ivoire

**Herrialdea:** Boli Kosta

---

**Data:** 22-11-06

**Izena:** Merche Brossa

**Kargua:** Zuzendaritzakoa

**Erakundea:** Xochilt Acatl

**Herrialdea:** Nikaragua

---

**Data:** 24-11-06

**Izena:** Ramona Morales

**Kargua:** Eraildako emakume baten ama

**Herrialdea:** Mexiko

---

**Data:** 24-11-06

**Izena:** Julia Esther Cañas

**Kargua:** Eraildako gazte baten ama

**Herrialdea:** Mexiko

---

**Data:** 24-11-06  
**Izena:** Oralia Hernández  
**Kargua:** Eraildako 3 urteko neskatila baten ama  
**Herraldea:** Mexiko

---

**Data:** 24-11-06  
**Izena:** Giovanna Lemus  
**Erakundea:** Red No Violencia Contra Las Mujeres  
**Herraldea:** Guatemala

---

**Data:** 13-12-06  
**Izena:** Daira Elsa Quiñónez  
**Kargua:** Zuzendari betearazlea  
**Erakundea:** EMAYEA  
**Herraldea:** Kolonia

---

**Data:** 13-12-06  
**Izena:** Gloria Cuartas  
**Kargua:** Giza eskubideen defendatzailea  
**Erakundea:** Colectivo Otra Colombia Es Posible  
**Herraldea:** Kolonia

---

**Data:** 13-12-06  
**Izena:** Dora Lucy Arias  
**Kargua:** Abokatua  
**Erakundea:** Corporación Colectivo de Abogados José Alvear Restrepo  
**Herraldea:** Kolonia

---

**Data:** 13-12-06  
**Izena:** Yolanda Amaya Herrera  
**Kargua:** Idazkari nagusia  
**Erakundea:** CSPP: Fundación Comité de Solidaridad con los Presos Políticos  
**Herraldea:** Kolonia

---

**Data:** 13-12-06  
**Izena:** María Jesús Pérez  
**Kargua:** Zuzendaria  
**Erakundea:** MCCH (Maquita Cushunchic)  
**Herraldea:** Ekuador

## Truke eta bisitaldietarako aurrekontua

### Truke eta bisitaldiak

---

Oum el Banine eta Ard Al Atfal (Agadir) elkaratekiko trukea .....	2.280,66 €
Kogoko kultur zentroarekiko trukea .....	2.075,77 €
El Salvadorreko hiru alkateren bisitaldiak .....	1.395,71 €
Beste bisitaldi batzuk, udalera .....	253,10 €



# 6

## **Lankidetzarako Kontseilua**



## 6. Lankidetzarako Kontseilua

Herritarrek parte-hartzeko Kontseiluak bideratutako jarduerak azaltzen ditugu atal honetan. Urtean zehar eztabaidatu eta erabaki ziren gai nagusiak hauexek izan ziren:

- Ahaztutako krisialdien inguruan gizaldeko ekintzetarako programa bat hautatzeko lehiaketa proposatu eta lantalde bat sortzea.
- Alderdi politikoen eta EAEko GGKEen koordinakundearen jarreraren azalpena, Garapenean Laguntzeko Euskal Legea dela eta.
- Lantalde bat sortzea, SETEMen prestakuntza programaren jarraipena egiteko.
- Kide berriak hartzea, bereziki bi etorkin elkarte.

Kontseiluaren jardunari buruzko datuak:

Bileraren data	Berataratuen kopurua	Gai kopurua
urtarrilaren 25a	33	5
martxoaren 23a	29	7
maiatzaren 11	35	8
ekainaren 29a	22	3
irailaren 28a	41	6
azaroaren 30a	33	7
abenduaren 14a	27	6
<b>Batez beste</b>	<b>31</b>	<b>6</b>

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko:

Helbidea: Etxanobetarren etxea  
Santa Maria kalea, 11  
01001. Vitoria-Gasteiz

Teléfonoak: 945 161577  
945 161654  
945 161616 · Ext. 3208

Faxa: 945 161355

Posta elektronikoak: [agabilondo@vitoria-gasteiz.org](mailto:agabilondo@vitoria-gasteiz.org)  
[betayo@vitoria-gasteiz.org](mailto:betayo@vitoria-gasteiz.org)  
[jjestevez@vitoria-gasteiz.org](mailto:jjestevez@vitoria-gasteiz.org)